

Kontzeju

Oñatiko Udal aldizkaria | 2017ko Martxoa | 270. zenbakia



www.oñati.eus



Berba Oñati



@BerbaOñati



oñati@oñati.eus



Oñati Irratib

DELIA



'Selma Huxley' ikerketa beka

Oñatiko emakumeek historian zehar egindako ekarpenak
ikertzeko beka emango du udalak

LIBRIA IZAN GURA DOT, EZ BALIENTIA



MARTXOAK 8

Hemen dugu aurtan ere **Martxoaren 8a**, emakumeen eskubideen alde mugimendu feministak urteetan eginiko lana gogoratu, eta gaur egun ere, oraindik, gizonezkoen eta emakumezkoen artean dauden desberdintasunak (gizartean, lan munduan, ekonomian, politikan...) salatzeko. Udaleko Berdintasun sailak, Oñatiko Sare Feministak (Andraitz eta Pototak), Zine-Klub taldeak, Elkar Hezi ikastetxeak, MU Enpresagintzako Berdintasun taldeak eta Kilometroak-2017ko lantaldeak hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Kartelerako aukeratu duten irudia ere berezia da, daukan balio sinbolikoagatik: iazko azaroaren 25ean herriko hainbat herritarrek auzolanean margotu eta ezezagunek erre zuten muraleko irudia da

M3 / OSTIRALA HITZALDIA

19:00 'Ekofeminismoa: deconstruir para construir alternativas. Hizlaria: Ana M. Dominguez. Kultur etxean.

M4 / LARUNBATA

EMAKUME ARTISAUEN AZOKA

10:30-14:30: Herriko emakume artisauen azoka herriko plazan, Sare Feministak antolatuta.



M8 / ASTEAZKENA

ELKARRETARATZEA ETA MUSIKA IKUSKIZUNA

18:30 Elkarretaratzea plazan, Sare Feministak deituta. 'Egiteko asko dagoelako eta ari garelako, batu feminismora!' lelopean.

19:30 'Konpasetan: bidaia intimo bat emakumeen istorioetan zehar' kultur etxean, udalak antolatuta.



M9 / OTEGUNA ZINE KLUBA

20:00 Zine Kluba. Maysaloun Hamoud-en 'Bar Bahar' (Bi munduren artean) film israeldarra ikusgai kultur etxean. Tel Aviv (Israel) hiriburuan

bizimodu askea egitea erabakitzen duten hiru emakume palestindarren istorioa. Donostiako zinemaldian saritua.

M10 / OSTIRALA

BERDINTXIKETAN

LASTERKETA MISTOA

18:30 VII. Berdintxiketan lasterketa. MU Enpresagintza fakultateko Berdintasun sailak eta Ikastolako KMK-2017 lantaldeak elkarrekin antolatuta. Nagusien lasterketa hasi aurretik, umeentzako lasterketa egingo da Foruen enparantzan (**17:00**etan). Nagusia (+16 urte) Enpresagintza fakultetetik abiatuko da, eta 5km.-ko ibilbidea egingo dute.



M11 / LARUNBATA

14:00 Bazkari feminista Antixena gaztetxean, Sare Feministak antolatuta.

M18 / LARUNBATA

9:30 Mendi irteera Andraitzera. Irteera, Santa Marina plazan (kotxez). Sare Feministak antolatuta.

'KONPASETAN: BIDAIA INTIMO BAT EMAKUMEEN ISTORIOETAN ZEHAR' / MARTXOAK 8

Ahotsa eta akordeoia lagun, musikaren historian zehar bidaia intimoa egitera gonbidatzen gaituzte Susana Cencillo musikariak eta Garazi Kamio idazleak, 'Konpasetan' ikuskizunaren sortzaileak. Eskusoinuaren laguntzaz, Kuba (Maria Teresa Vera), Argentina (Mercedes Sosa), Frantzia (Edith Piaf eta Luise Bourgeois) eta Euskal Herriko (Lourdes Iriondo) emakumeen bizitza eta obra errepasatuko dituzte beraien abestien bidez.

Susana Cencillo goi mailako musika irakasleta eta Andoaingo 'Soinuak' musika eskolaren sortzailea da, eta Garazi Kamio irakaslea da eta, besteak beste, 'Orube abandonatuak' (Elkar, 2014) nobela idatzi du.



Garazi Kamio eta Susana Cencillo

M22 / ASTEAZKENA TERTULIXA

18:30 Tertulixa, 'Gatazka armatua eta kartzela' liburuaren inguruan, Zuriñe Rodríguez idazlearekin, Danele Sarriugartek gidatuta. Espainiar estatuaren kontrako borroka eta patriarkatuaren aurkakoa alderatzen ditu liburuak, non batekoak gudariak diren, eta bestekoak, berriz, putak, etsaiak, konbertsoak...

M29 / ASTEAZKENA

IKERKETA BEKAREN AURKEZPEN ETA MAHAI INGURUA

19:00 'Selma Huxley' ikerketa bekaren aurkezpena eta, ondoren, mahai ingurua: 'Emakumeon memoria historikoa' eta 'Gerra gauza alua da', Irantzu Mendia (EHUko irakaslea eta Hegoa institutoko kidea) eta Amagoia Gurrutxaga kazetariarekin. Euskaldun Berria aretoan, 19:00.



'SELMA HUXLEY' IKERKETA BEKA

Selma Huxley Berkham (London, 1927), 20 urtez

Oñatin bizi izan zen ikerlari ingeles-kanadiarraren izena duen ikerketa beka emango du udaleko Berdintasun sailak aurreneko aldiz XVI. mendean Ternuan egon zen euskal bale-industria deskubritu zuen Selmak.

Oñatiko emakumeek historian zehar egindako ekarpenak (lanean, bizitza sozialean, ekonomian, politikan, kulturean...) aztertzea eta plazaratzea da bekaren helburua.

Ikerketaren iraupena urtebetekoa izango da. Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da goi mailako tituluduna izatea, eta talde bat bada, gutxienez erdiek bete beharko dute baldintza hau. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 30 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira proposamenak udaleko Erregistroan. Ikerketa proiektuaren planteamendua, metodologia eta eskatzaileem curriculumak baloratuko dira, besteak beste, esleipena egiteko.

Bekak 12.000 euroko dotazioa du.

Gora borroka feminista!

Heldu da 2017ko martxo ere. Beste urte batez mugimendu feministak bere aldarri eta ospakizunez beteko ditu Euskal Herriko gaztetxe, kale eta plazak. Beste urte batez ozen esango dugu indarkeria matxistak gure bizitzak kolpatzen jarraitzen duen bitartean aurrean izango gaituela, borrokan jarraituko dugula. Borroka, barre eta dantza artean sareak ehunduz, gure artean ahaldunduz. Borroka honek merezi duelako, gure bizitzak jokoan daudelako baina bereziki lotzen gaituzten kateak apurtzen joateak sorrarazten digun indar eta bizipoza izugarria delako. Aurten ere ozen errepikatuko dugu: GORA BORROKA FEMINISTA!



Oñatiko Sare Feminista

M31 / OSTIRALA

19:00 Antzezlan: 'Código Atenea'. Elkar Hezi ikastetxeko DBH 4ko Kultura Klasikoko ikasleek antolatuta. Antzinako antzerkia eta gaur eguneko gizarte arazoak lotzen dituen obra da. Greziar Olinpoko hamabi jainkoak abiapuntu hartuta, gaur egun emakumeek bizi duten egoera azalduko digu komedia eran Eguzki Zubiak. Kultur etxean, dohainik, (gazteleraz).



A6 / OSTEGUNA

19:00 Liburu aurkezpena. 'Laura deitzen zioten', Leire Ibarguren eta Miren Odriozolarekin. Antixena gaztetxean.

- BARNE DISEINUA
- ALTZARIAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
- ERREFORMAK

oreka

REFORMAS - INTERIORISMO

Euskadi Etorbidea 3 • Tel.: 943 902 009
orekainteriorismo@yahoo.com



Arantzazuko auzotarrak Joseba etxeratzeko garaia dela aldarrikatuz

Joseba Arregi, 'Azpilleta', 25 urte preso

» Apirilaren 1ean, 12:30etan, ekitaldia egingo da Foruen enparantzaz 70 urte beteta dituen Joseba etxeratzeko garaia dela aldarrikatzeko

Martxoaren 29an beteko dira 25 urte Joseba Arregi 'Azpilleta' Bidarten (Lapurdi) atxilotu zutenetik, ETaren logistikako ardura-duna izatea leporatuta. Hamar urteko kondena bete zuen Frantzian, eta 2000. urteko azaroaz geroztik Espainiako kartzela ezberdinetan egon da preso. Hogeita bost urte, guztira. Baina gobernu espainiarrak ez ditu kontutan hartu nahi Josebak Frantzian egindako espetxealdia, eta beste hamar urtez eduki nahi du atxilo. Josebak 71 urte beteko ditu martxoaren 27an.



Joseba Arregik egindako margolana

JOSEBA ARREGI Azpilleta baserrian jaio zen 1946an eta zazpi anai-arreben artean zaharrena da. Eskulanetan eta margoak egiten trebea da eta bi erakusketak antolatu ditu Oñatiko kultur etxean.

41 urte daramatza Euskal Herritik kanpo eta Frantziar eta Espainiar Estatu-tuko 11 kartzela desberdinetan izan dute preso. Gertuen Madrileko (*Valdemoro* edo *Soto Del Real*) eta Pariseko (*Fleury* edo *Fresnes*) espe-txetan egon da eta urrutien *Clairvauxen* 1233km-tara, Frantzia iparraldean eta Alemaniako mugatik gertu.

Gaur egun Alacanteko (Villena) espetxean dago, etxetik 780 km-etara. Euskal Herritik 14 orduko joan etorria 40 minutuz kristal batek banatzen duen bisita egiteko.

Honek suposatzen duen arazo psikologikoak nabarmenak dira: inpotentzia, sufrimendua, bakardadea... Kostu ekonomikoa eta neke fisikoa kontutan hartu gabe. Senideek beraien lehentasunetan autuak egin dituzte, osasuna eta zoriontasuna gauzatzeko.

Bere bikotea den Nekane Basauri galdetu ziotenean: "Joseba noiz irten-

go da kartzelatik?", bere erantzuna hau izan zen: "Gobernu Espainiarraren arabera 2028an". "Eta Frantzian egindako urteak kontutan hartuko balira?" Nekaneren hitzetan: "3-5 urtetan kalean egongo litzateke lege judiziala eta ez politikoa (7/2003) aplikatuko balitzaio... 70 urterekin nirekin legoke kalean".

Nekaneren ustez: "Esperantza bakarra gizartearen gain geratzen da, Euskal Herriaren alde hautaketa egin dutenen artean, herri mugimendu, klase langilegoa eta elkartasuna adierazten duen oroengan. Indar meta-ketarekin lortuko dugu preso, deportatu eta errefuxatuak etxera ekartzera".

Datorren martxoan, 71 urterekin, 25 urte beteko ditu preso. Xabin eta Xabierrek aldiz, 20 urte beteko dituzte. Ez al da garaia aske egoteko?

Hau dela eta, datorren larunbatean apirilaren 1a, eguerdiko 12:30etan Joseba eta beste euskal preso guztiak etxean behar ditugula aldarrikatzeko ekitaldi xume bat egingo da Foruen Enparantzaz. Herritar guztiak gonbidatuak zaudete.

Josebaren senide eta lagunak

✉ GUTUNA

25 urte kartzelan; 41 urte herritik kanpo

Kartzela kontuekin lerro batzuk idaztean, preso gaixoeekin oroitu naiz, eta herritar abertzale eta humanista guzietan eskatu nahi diet, bi Estatuetakok kartzeletan dauden dozenaka preso gaixoak ez ahazteko. Geuk bakarrik dakigu, preso izanik, hemen gaixo egotea zer den

Aldi berean, Oñatiko preso kideak, Xabin, Xabier eta herritik kanpo daudenak, herrian egiten dituzuen ekimenetan ez ahazteko eskatzen dizuet. Denok gaude preso kausa beragatik eta etsai beraren menpe gauzkate.

Nik 41 urte daramatzat herritik kanpo, bizitza erdia. 25 urte naukate preso, han edo hemen, Frantzian eta Espainian. Hogeitabost urte hauetan "mila istorio" eta borroka izan ditugu.

Gure bizitzako ibilbide luzean borroka txango ezberdinak izan ditugu, Diktaduraren errepresioari erresistentzia eginez eta ondorengo txangoetan borondate oneko alenatibak eskainiz. Beti Euskal Herriaren alde, beti askatasunaren alde. Zahartu garenok esaten ahal dugu, egin genuen erresistentziak balio izan duela herritar kontzientzia pizteko.

Borroka neketsua da, baina borrokatu beharra dago. Injustiziaren kontra borrokatzen duenak zerbait utziko du, kontzientziak piztuko ditu. Idazle batek dioena neure egiten dut: "SEKULA EZ DUGU PENTSATU BEHAR GALDU EGIN DUGUNIK, JAKIN IZAN ZUTEN "SU TXIKI" HORRI EUSTEN, EUSKAL KULTURA BABESTU ZUTEN, EUSKARA BABESTU ZUTEN. ASKATASUN GUDA HORRI EUTSI ZIOTEN ETA GU ERE BERAIEGATIK GAUDE ORAIN HEMEN, EUTSI ZIOTELAKO"

Bilboko urtarilaren 14ko manifestazioa zoragarria izan zen, nahiz eta "Jainkoa" kontra edukit. Horrelako mobilizazioak mundu guzian ikusi dituzte, baita Monkloan ere, nahiz eta bihotz errea egin.

Nik eta gure kide orok, dozenaka edo hogeitaka urtez iraun dugu egun handiaren zain eta ziur gaude helduko dela. Urte asko dira eta banoa zahartzen eta urteen "motxilak" zama handia eta atxake ugari ematen dizkit eta irautea da zailena. Ordea, Oñatiko herria (azken hamarkadan) eredu bezala daukate giputxek. Horrek pozten nau !

Esan beharra dut ere, Oñatiko herritarrek (modu batera edo bestera) laguntza eta sostenguzela iman didatela. Hautetsietatik hasi, Mirentxintarrak, kirol eta pilotazaleak, bisitara etorri direnak, Aloñako mendizaleak, Urbixako artzainak, aupa zuek !! Horrelako herri eta herritarrekin, gizarte hobe batera goaz. Beti zuekin

Joseba Arregi 'Azpilleta'



“ Zahartu garenok esaten ahal dugu, egin genuen erresistentziak balio izan duela herritar kontzientzia pizteko. Urte gogor eta ilunetatik itxaropenezko ziklo berri batera igaro garelakoan nago.

“ Guk ez dugu biktimismoz egin nahi, baina presoak pairatzen duguna azaltzen dugu. Preso gaixoak hiltzerian daude eta politikari eta poltronero horiek salatu beharra daukagu, legea ez dutelako aplikatzen eta euren interesetara ezartzen dutelako 'ingenieritza juridikoa' eginez

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jalone San Miguel Ugarte

MAPFRE
 OÑATI

Oñatiko ahozko artxibo digitala

» Adineko 157 herritarri egindako elkarrizketak entzun daitezke www.ahotsak.eus/onati webgunean

» Herriko hizkera aztertzeke eta sasoi bateko bizimodua ezagutzeko altxor paregabea da

Oñatiko aspaldiko kontuak bertako euskara jatorrean entzun gura dituenak 'www.ahotsak.eus/onati' web atarira jo besterik ez dauka. Adinean aurrera doazen (batzuk hilda daude, jada) 157 herritarri egindako elkarrizketak aurkituko ditu bertan; batzuk bideo formatuan, beste batzuk audioan, eta, zenbait kasutan, testura transkribatuta.

Gainera, elkarrizketa asko pasarte motzetan antolatuta daude, gaiaren arabera, eta horrek samurtu egiten du gai zehatz baten inguruko entzungaien bilaketa. Denera, 955 bideo- eta 171 audio-pasarte daude ikus edo entzungai.

URTETAKO LANA

Hainbat urtetako lanaren emaitza da ahotsak.eus atarian eskura daukaguna. Oñatiko udalak 2008an sinatu zuen lan-kidetza hitzarmena Badihardugu Euskara Elkartearekin, ahozko ondarea jaso, antolatu eta hedatzeko helburuarekin.

Bi ardatz edo lan ildo izan ditu Badiharduguren lanak. Alde batetik, beste proiektu batzuetarako lehendik eginda zeuden grabazioak bildu eta katalogatu ditu. Eta, bestetik, adineko hainbat herritarrekin egindako elkarrizketak grabatu dituzte bideoz.

Eta informazio hori guztiori behar bezala editatu eta landu ondoren, guztion eskura dago

Elkarrizketa horietan euren sasoiko bizipenak kontatzen dituzte lekukoek: ume-jolasak, eskola garaikoak, gerrako gorabeherak, ofizioak, erlijio kontuak, erromeriak...

orain Interneten.

BENETAKO ALTXORRA

Elkarrizketa horietan euren sasoiko bizipenak kontatzen dituzte lekukoek: ume-jolasak, eskola garaikoak, gerrako gorabeherak, soldadutzakoak, gose urteak, estraperlua, erlijio kontuak, ofizioak, ezkontzak, erromeriak, garraiobideak, lehenagoko arropa eta jakiak... Eta den-dena Oñatiko euskara fresko, natural eta jatorrean.

Balio handiko ondarea, inondik ere. Alde batetik, Oñatiko hizketa-molde ezberdinak eta auzotik auzora dauden aldaerak aztertzeke aukera ematen du. Eta, bestetik, etnografia aldetik ere, informazio ikara-





www.ahotsak.eus/onati webgunean dauden 157 elkarrizketatueta batzuk

garria dago elkarrizketa horietan, eskoletan erabiltzeko ere oso lagungarria izan daitekeena.

EUSKAL HERRIKO AHOTSAK

Oñatiko ahotsen artxibo hau 'Euskal Herriko Ahotsak' proiektu mardularen barruan dago. Ildo horretan, 'www.ahotsak.eus' webgunean Euskal Herriko zazpi herrialdeetako ahozko ondarea aurkituko dugu, herrika antolatuta. Dagoeneko 326 herritako 5.485 hizlari eta 43.448 bideo-pasarte daude jasota webgunean.

Oñatiko 157 herritarrekin egindako elkarrizketa horietatik ateratako 955 bideo eta 171 audio-pasarte daude ikus edo entzungai webgunean

PROIEKTU ASKOTAKO ELKARRIZKETAK

www.ahotsak.eus/onati webgunean aurkituko ditugun elkarrizketa gehienak *Badihardugu* Euskara Elkartek azken zortzi urteotan egindakoak dira. Baina horiez gain, lehendik beste proiektu batzuetarako eginda zeuden grabazioak ere bildu dituzte: hala nola, Oñati Irratikoak, Laixan euskara elkartearenak, Fermin Altuberena, Ander Lizarralderenak, Maider Irizarrenak, Gerra Gogoratu Guran taldekoenak, edota EHUKo Dialektologia ikasleek egindakoak, batzuk aipatzearren.

Elkarrizketak egiten ere makina bat jendek parte hartu du (50 bat lagun). Eskertzekoa denek egin duten lana, horri esker osatu ahal izan baita ahozko ondare edo altxor baliotsu hau.

Elkarrizketekin batera, elkarrizketatuari buruzko hainbat datu ere aurkituko ditugu webgunean. Alde horretatik Roberto Altunari eskerrak eman beharrean gaude, hizlarien inguruko informazioa osatzeko egin duen lanagatik.



Hotz-Oñati taldeko kideetako batzuk

Errefuxiatuentzako janari bilketa egingo du HOTZ-OÑATIK

Martxoaren 30etik apirilaren 1era egingo da bilketa herriko saltokietan. *Bertan batutakoa* egunero 1.000 errefuxiatur jaten ematen dien **Zaporeak** proiektura bideratuko da

Orain dela urtebete sortu zen Hotz-Oñati taldea, gerratik eta miseriatik ihesi, Europara iritsi nahi duten errefuxiatuen drama arintzen laguntzeko asmoz. Lan handia egin duten urte osoan zehar, baina, zoritxarrez, egoerak ez du hobera egin. Grezian blokeatuta dauden milaka errefuxiatuen egoera larria da, eta laguntza beharrezkoa da oraindik ere.

Horregatik, Hotz-Oñatik janari bilketa berria egingo du, martxoaren 30etik apirilaren 1era, herriko saltoki nagusietan. Arroza, pasta, garbantzuak, dilistak, babarrunak, zabaltzeko errazak diren lata-janariak (txerrikiak salbu), olioak... eta galkorrak ez diren jakiak batu nahi dituzte. Bildutako guztia *Chios* irlako kanpalekuan egunero 1.000 inguru errefuxiatur jaten ematen dien *Zaporeak* proiektura bideratuko da. Hotz-Oñati taldeak dei egiten die herritarrei elkartasun kanpaina honetan parte hartzera, orain arte bezala.

‘NACIDO EN SIRIA’ FILMA

Eguna oraindik zehaztu gabe badago ere, Goya sarietara izendatuta egon den ‘Nacido en Siria’ (Zuz.: Hernan Zin) filma ekarriko du Oñatira Hotz-Oñatik. Siriako gerratik ihes egin zuten 4 milioi errefuxiatuen bizipenak kontatzen ditu, haurren ikuspuntutik.

Urtebete, errefuxiatuen drama arindu nahian

‘Pena litzateke, gutxi egin dezakezula uste izateagatik, ezer ez egitea’. Halaxe zioen Hotz-Oñatik ateratako azken kartelak, eta egia borobila da, laguntzarik txikiena ere oso baliagarria delako kanpalekuan bizi diren errefuxiatuen egoera goxatzeko.

Helburu horrekin eratu zen Hotz-Oñati taldea iazko martxoan, eta hainbat ekimen atera dituzte aurrera urte osoan zehar, ondoko orrian ikus daitekeen moduan: laguntza humanitarioa bidali, sentsibilizazio lana egin, gobernuen jokabidea salatu...

Urtebeteko jardunaren balantze positiboa egin dute Hotz-Oñatiko kideek, eta lanean jarraitzeko borondatea berretsi, “beharrezkoa delako oraindik, tamalez. Muga guztiak itxita, milaka errefuxiatu daude kanpalekuan blokeatuta, etsita, mafien esku, diru barik...”.

Hogeit bat lagunek osatzen dute Hotz-Oñati taldea, baina ekintza puntualetan beste asko agertzen dira laguntzeko prest. “Gainera, herritarren aldetik jaso dugun erantzuna eta babesa ere oso ona izan da, eta, beraz, lanean jarraitzeko prest gaude”.



M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSOANAK, LENDAK, LUB FLUTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DI SEINATZAILLE ETA MONTATZAILER

SURFALDEAK, KOMMANK eta ASKEKZ GEMING

ORAKUA 12 O 4 esk. - 20000 OMAZI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



MATERIAL BILKETA

Material bilketa ezberdinak egin ditu Hotz-Oñatik urtean zehar: 1.000 kilo janari, mantak, koltxoak, produktu higienikoak, neguko oinetakoak eta eskolarako motxilak bidali dituzte, besteak beste, Greziara.



DIRU BILKETA

Itsulapikoak, aloe landareak eta bestelako *merchandising* produktuak, pintxo-poteak... Hainbat bide jorratu ditu Hotz-Oñati taldeak, dirua bildu eta kanpalekuan behar duten materiala bidali, edota Grezian lanean diharduten beste talde eta proiektu batzuei laguntzeko.



Makina bat herritar aritu dira Hotz-Oñatiri laguntzen: bilketa lanak egiten Hermansoloñaren lokalean, Oñatiko mendi martxako antolakuntzan, pintxo-pote solidarioan, San Migeletako txosna batzordean, plazako salmenta postuetan...


PROIEKTUEI LAGUNTZEN

Hotz-Oñatik ekonomikoki lagundu du egunean milaka otordu prestatuko dituen 'Mobil Kitchen' sukalde solidarioa martxan jartzen (Hotz-Oñatiren logoa ikus daiteke bertan), eta Greziako kanpalekuan material banaketa egiten duen Galdakako GBGE taldearentzako furgoneta bat erosten.



SENTSIBILIZAZIOA ETA SALAKETA

Errefuxiatuek bizi duten egoera larria salatzen eta herritarrek sentsibilizatzeko hainbat ekintza antolatu ditu Hotz-Oñatik: elkarretaratze zaratzak, Grezian egon diren bolondresen hitzaldiak, argazki erakusketak, dokumentalak...



KANPALEKUETAN BOLONDRES

Iñaki Urizar, Jon Soba, Maddi Txinturreta eta Arantzazu Zubeldia oñatiarrak Greziako kanpalekuan egon dira laguntzen, eta Hotz-Oñatik emandako dirulaguntza eraman izan dute, kanpaleku bakoitzean ikusten zituzten beharretan gastatzeko.



MOTXILAK ETA ESKOLA MATERIALA HAURRENTZAT

Oso arrakastatsua gertatu zen kanpalekuetako haurrentzako motxilak eta eskola materiala batzeko kanpaina. Denera 1.162 motxila eta 2.000 kilo material bidali ziren. Bestalde, 'Zorionekoa naiz' liburua ere saldu du Hotz-Oñatik. Gerraren ondorioz dena galdu dutenen drama azaltzen duen ipuina da.



FORMAZIOA AUZOLANEAN

Antixena gaztetxean **autoformakuntza** saioak antolatzen dituzte, jakinduria elkarbanatzeko helburuarekin

A skotariko ekintzak antolatu ohi dituzte Antixena gaztetxean: kontzertuak, bertso saioak, hitzaldi eta mahai-inguruak, erakusketak, ibilaldiak... Eta bada tartean, geuri behintzat atentzioa ematen digun beste ekimen bat: autoformakuntza saioak. Kuantitatiboki ikusita ez dira gaztetxean antolatzen diren ekitaldirik arrakastatsuenak, ez dutelako jende askorik biltzen, baina, kualitatiboki, berezia, desberdina eta oso aberatsa dela iruditzen zaigu. Auzolana praktikatzeko beste modu bat da; auzolan intelektual, nolabait esatearren. Norberak dakiena besteekin partekatu eta elkarrengandik ikastea eta aberastea da saio hauen helburua. Azkena, otsailaren 8an egin zuten, Jorge Oteizaren pentsamenduaren inguruan, *'Quosque Tandem...!'* liburua oinarri hartuta.



Otsailean egindako autoformakuntza saioko irudia. Bataz beste zortzi lagunek parte hartzen dute.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Orain dela bederatzi urte hasi ziren autoformakuntza saioak antolatzen Gazte Asanbladako kideak, gaztetxea San Martin-go etxe okupatuan zegoen garaian. "Arlo ezberdinetako ikasketak (filosofia, soziologia, psikologia, filologia, ingurumen zientziak,...) egindako jendea geunden gazte asanbladan, eta geure artean komentatzen genuen aberasgarria izango zela alkarri erakustea norberak zekienetik" azaldu digu Aimar Uribesalgok, autoformakuntza saioen sustatzaileetako batek. "Ander Lizarralde antolatu zituen aurreneko saioak; gero neu ere hasi nintzen eta, batzaz beste, urtean lauzpabost autoformakuntza saio egiten ditugu".

Borobilean eserita, gaiaren inguruko testuak txandaka irakurri eta denon artean komentatzen ditugu

Ormaiztegi, Azpeitia eta Azkoitiako gaztetzeeetatik ere eskatu digute autoformakuntza saioak egitea

DINAMIKA PARTEHARTZAILEA

Borobilean eserita, antolatzaileak eramaten dituen testu zatiak txandaka irakurri, eta guztien artean komentatu. Horixe da autoformakuntza saioen dinamika. "Aktibo egotea eskatzen duen formatua da. Ez da hitzaldi bat bezain eroso. Hitzaldi batean ez daukazu parte hartu beharrik, pasibo egon zaitezke, eta autoformakuntzetan ere horrela da, baina diferentzia da, azken honek parte hartzea samurtu egiten duela" azaldu digu Aimarrek. "Horrela, norberak aukeratu dezala noraino parte hartu, baina helburua da jendearen iritzia, hausnarketa, galdera edo duden bidez guztiok ikastea".

Batzaz beste zortzi lagun elkartzeko dira saioak. Inoiz, hamasei ere batu dira. Ez da, beraz, gaztetzeari antolatzen diren ekimenetan arrakastasue-

na, baina bere xumetasunean balio ugari biltzen dituen dinamika aberatsa da. "Jakintza, hein batean, guk geuk kudeatzeko aukera ematen du, aditu bat ekartzearen menpe egon barik, norberak dakiena konpartituz". Auzolana praktikatzeko beste modu bat, azken batean.

Inoiz kultur etxean ere egin izan dituzte autoformakuntza saioak, jende gehiago batzen ote zen ikustearren, baina hala-akorik gertatzen ez zela ikusita, gaztetzeari egiten jarraitzen dute. Dena den, herritar guztiei irekiak dira saioak, eta, hain zuzen, gaiaren arabera adineko jendeak ere parte hartu izan du.

METODOLOGIA ESPORTATU

Autoformakuntza saioen dinamika beste talde batzuetan ere aplikatu izan da. Oñatin bertan, esaterako, *Zero Zabor* eta *Gure Esku Dago* taldeetan ere egin izan dituzte formazio saioak, *Ikas-Tailerrak* izenpean, baina gaztetzeko dinamika bera jarraituz. "Elkar Heziketa Batxilergoko 1. mailako ikasleekin ere egin dut Oteizari buruzko autoformakuntza saioa, bertako filosofia irakasleak eskatuta" azaldu digu Aimarrek.

Eta Oñatitik kanpora ere eman dute atentzioa Antixena gaztetzeko autoformakuntzek, Aimarrek azaldu digunez. "Ormaiztegiako gaztetzeari saio bat egin dugu, Azpeitiakoan birritan izan naiz, eta martxoan beste bi saio egin behar ditugu Azkoitian".

Antixena gaztetzeari apirilaren 26an egingo dute hurrengo saioa, Miguel Amoros-en 'Perspectivas antidesarrollistas' liburua oinarri hartuta.

ASKOTARIKO GAIK

Askotariko gaiak jorratzen dituzte gaztetzeko autoformakuntza saioetan. Hona hemen horietako batzuk: **Euskal Herriaren historia**, 'La Navarra marítima' (Tomás Urzainqui eta Juan Maria de Olaizola) liburua oinarri hartuta; **Kapitalismoa** eta **kontsumismoaren** inguruko hausnarketa; **Ekonomia zirkularra** eta materia berrerabili edo birziklatzearen garrantzia; **Komunismoa** eta **kapitalismoaren** arteko alderaketa, 'La sociedad del espectáculo' (Guy Debord) liburutik abiatuta; **Euskal abertzaletasun** sentimenduan izan den garapena, 'Vasconia' (Federico Krutwig) liburua oinarri hartuta; **Merkatalgune** handien eragina gaurko gizartearen; **Elkaduraren** inperioak; **Drogen** eragina mugimendu sozialetan; **Kooperatibismo neoliberalari** kritika, 'El mito de Mondragón' liburua oinarri hartuta; **Zigor sistemaren** eboluzioa feudalismotik gaur egunera arte 'Vigilar y castigar' (Michel Foucault) liburutik abiatuta; **Gizarte industrial** eta **ezker tradizional iraultzailearen** inguruko hausnarketa; **Garraio ereduaren** inguruko hausnarketa; **Euskararen galeraren** azterketa; **Hitler-en Mein Kampf** liburua azterketa; **Lope de Agirrerri** buruzkoa...



ESKAINNTZA
90€
BEREZIA

2016-2017 urteetan

EZKONTZETAN

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com

Enpresagintza Fakultateak egoitza berria estreinatu du Bidasoako campusean

Enpresa berrien inkubazio-gunea sortu eta prestakuntza dualean oinarritutako hezkuntza eredua indartzeko aukera emango dio kokapen berriak

Irungo udalarekin sinatu duen hitzarmenari esker, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateak egoitza berria estreinatu du *Palmera Montero* gizarte-etxeko instalazioetan.

Oñatin egoitza nagusia duen Enpresagintza fakultateak orain dela hamahiru urte sortu zuen Bidasoako campusa. Orain arte ere Irungo udalak utzitako instalazioetan burutu du bere jarduna, baina egoitza txiki geratzen hasita zegoen, eta kokapen berrian 2.200m²-ko azalera izango du (lehen baino 600m² gehiago) proiektua hobeto garatu ahal izateko. “Espazio gehiago edukitzeak aukera emango digu zerbitzu hobeak eskaini ahal izateko ikasleei. Eta, gainera, espazio berri bat irekiko dugu, LEINN gradua (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) amaitzen duten ikasleentzako. Sortzen dituzten enpresak garatzeko espazio bat izango dute unibertsitatean bertan, hasierako fase batean, Bilboko campusean egiten dugun moduan” azaldu digu

LEINN gradua amaitzen duten ikasleei espazio bat eskaini nahi diegu, enpresa proiektuak unibertsitatean bertan garatu ditzaten lehen fase batean.

GADE graduan prestakuntza duala (ikasketak eta lana txandakatzen dituen) eskaintzen duen fakultate bakarra gara estatu osoan.



Lander Beloki, Enpresagintza fakultateko dekanoa, Irungo egoitza berriaren aurrean

Lander Belokik, fakultateko dekanoa. “Enpresa berrien inkubazioan urrats bat harago joan nahi dugu”.

PRESTAKUNTZA DUALA INDARTU

GADEko (*Administrazioa eta Zuzendaritza Gradua*) ikasleei eskaintzen zaien alternantzia-ko eredua (duala) indartzea da Enpresagintza fakultatearen beste helburuetako bat.

Hiru urte daramate eredu hori garatzen Enpresagintza fakultatean, bai Irunen eta baita Oñatin ere. “Ikasketak eta lana txandakatzean oinarritzen den eredua da” azaldu digu Belokik; “fakultatean ez ezik, enpresan ere ikasten dute gure ikasleek, ikasketekin lotura zuzena duten lanak eginez, eta ikaste prozesua indartuz”.

GADE graduan formazio duala eskaintzen duen estatu

mailako fakultate bakarra da Enpresagintza. “Gure ardura nagusia da Euskadiko enpresek behar dituzten profilak ondo prestatu ahal izatea, eta oso zentratuta gaude ikasleen ikaste-esperientziaren diseinuan” azaldu digu dekanoa. “Zorionez, enpresa asko daude kolaboratzen eredu dualaren garapenean. Irunen, adibidez, azken hiru urteetan GADEko 180 ikaslek egin dituzte praktikak enpresetan”.

Gaur egun 1.381 ikasle ditu Enpresagintza fakultateak eta horietatik 311 ari dira Irunen.

ATE IREKIAK OÑATIN

Enpresagintza fakultateak eskaintzen dituen graduak eta bertako hezkuntza-eredua nahiz instalazioak ezagutu nahi dituenak martxoaren 11n (12:30etan) izango du aukera Oñatiko campusean.

PSICLOGIA ZENTROA
ROSA RUEDA
Zubilaga Auzoa, 20
943 04 74 06
psicologia-rueda@cop.es
www.psicologiarosarueda.com

ANSIETATEA
ESTRESA
FIBROMIALGIA
DEPRESIOA...

Amalia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

Zaharberritzeak - Ikuskaritza Teknikoak (ITE) - Zuzendaritza energetikoak (CEE)
Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak - Barne dekorazioa-Jarduerak libentziak
tel: 677 31 20 57 • email: amaliagartua@gmail.com • Oñati

Etxebizitza edo
lokal bat
saldu nahi
al duzu

Oñatin?

Nun hobeto

Etxian baino?



Oñatiko inmobiliaria berria

Lokal edo etxebizitza bat saldu nahi al duzu Oñatin?

Iragarri zaitez doan gure inmobiliaria berrian.
Zaindutako argazkiekin, iragarki profesional bat
prestatuko dizugu eta jabetu dadila herri guztia!

Gure arkitektoak landutako **Efizientzia**

Energetikoaren ziurtagiria opari. Edozein
salmenta egiterakoan beharrezko
egiaztagiria. **SALTZAILEENTZAT ESKAINTZA**



eta Donostian etxe bat
erosi nahi baduzu...



Erosleentzat

Aukera onenen zerrendak eta alerta zerbitzua
Kostu eta tramite guztiak ezagutzeko aholkularitza

Personal Shopper zerbitzua:

Merkatu inmobiliarioen aditus den pertsona batek
merkatuko aukera onenak bilatuko dizkizu



Aspaldiko ametsa



Inbertsio bikaina



Facebook.com/Etxian

www.etxian.net • Tel.: 943 71 61 60

ELKARBIZITZA-ARAU BERRIAK

herriguneko oinezkoen eremuetan

» Martxoaren erdialdera sartuko dira indarrean arau berriak.

» Oinezkoen kaleetan baimendutako ibilgailuak bakarrik sartu ahal izango dira. » Txaketuako bidegurutzeari itxita egongo da arratsaldeetan eta asteburuetan

Martxoaren erdialdera (15ean seguruenez) sartuko dira indarrean erdiguneko kaleetako trafikoa ordenatzeko elkarbizitza-arau berriak. Ondoko planoetan adierazten da kale bakoitzean zein ibilgailu mota ibili ahal izango den ordutegi ezberdinetan, eta noiz egongo den zabalik bakarrik oinezkoentzat. Azpimarratzekoa da, gainera, Kale Zaharrean eta Kale Barrian baimendutako ibilgailuak bakarrik ibili ahal izango direla, aurrerantzean.

Beste aldaketa inportantea Zazpibidietako (Txaketua) bidegurutzeari emango da, izan ere, Unibertsitate etorbidea itxita egongo baita (Aita Madina kaletik San Anton kalerainoko tartean) eguerdiko 12:00etatik aurrera (lan egunetan) eta egun osoz jai egunetan. Hiru hilabeteko froga pilotua egingo da. San Anton kalea ere itxita egongo da Zumeltzegi dorrerako bidegurutzetik aurrera (baimendutako ibilgailuak bakarrik sartu ahal izango dira bertara).

Kale Zaharra eta Unibertsitate etorbidea



■ Unibertsitate etorbidea (Txaketua)
Froga pilotua (3 hilabete)

ASTELEHENETIK OSTIRALERA:

- 07:15 - 12:00: zabalik era guztietako ibilgailuentzat
- 12:00 - 07:15: zabalik garraio publiko eta bizikletentzat bakarrik

LARUNBATA:

- 07:45 - 12:00: zabalik era guztietako ibilgailuentzat

IGANDE ETA JAI EGUNAK:

- Zabalik garraio publiko eta bizikletentzat bakarrik, egun osoan.

■ Kale Zaharra

ASTELEHENETIK LARUNBATERA:

- 08:00 - 12:00: zabalik baimendutako ibilgailuentzat, zabalik egiteko.
- 12:00etatik aurrera: zabalik bakarrik oinezkoentzat

IGANDE ETA JAI EGUNAK:

- Zabalik bakarrik oinezkoentzat.

**3 hilabeteko froga pilotua egingo da
Txaketuako bidegurutzeko mozketarekin**

Kale Barria eta Atzeko Kale



Atzeko Kale, beheko aldea

ASTELEHENETIK OSTIRALERA:

- 07:15 - 12:00: zabalik era guztietako ibilgailuentzat
- 12:00 - 07:15: zabalik garraio publiko eta bizikletentzat bakarrik

LARUNBATA:

- 07:45 - 12:00: zabalik era guztietako ibilgailuentzat

IGANDE ETA JAI EGUNAK:

- Zabalik garraio publiko eta bizikletentzat bakarrik, egun osoan.

Kale Barria eta Atzeko Kaleko goiko aldea

ASTELEHENETIK LARUNBATERA:

- 08:00 - 12:00: zabalik baimendutako ibilgailuentzat, zamalanak egiteko.
- 12:00etatik aurrera: zabalik bakarrik oinezkoentzat

IGANDE ETA JAI EGUNAK:

- Zabalik bakarrik oinezkoentzat.

Arantzazuko Aina

San Martin

Adosatuko Kurtzekua

Kurtzekua

ZATOZ INFORMATZERA!!

italde

www.italde.com

Ramon Irizar kalea
T. 943 78 27 07



Goribarren eta Garibain errotonda bana egokitzeko urgentziatzko eskaera luzatu dio Udalak Foru Aldundiari

Goribarren (Urbietan baserri ondoan) eta Garibain (Ulma Eraikuntza lantegiko sarrera parean) biribilgune bana egokitzeko urgentziatzko eskaria luzatu dio udalak diputazioko Bide Azpiegiturarako sailari. Egunero 10.000tik gora ibilgailuren joan-etorria jasaten duen errepide tarte horretan trafikoa ordenatzea eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzea da eskaera honen helburua.

Bidegurutze arriskutsuak daude GI-2630 errepideko tarte horretan, eta istripu ugari gertatu izan dira, hildakoekin ere bai, tartea. “Horregatik, uste dugu behar beharrezkoa dela gune horretako trafikoa ordenatzea ahal bait lasterren, are gehiago, kontuan hartuz Ulma Packaging-ek lantegi berria zabalduko duela aurki Urbietan poligonoan” adierazi du Irati Etxeberriak, udaleko Hirigintza saileko arduradunak. Proposatzen diren bi errotondak eginda, trafikoaren abiadura motelduko litzateke, batetik, eta inguruko industriagune eta baserrietarako sarrera-irteera erraztuko, bestetik.

Ilde horretan, otsailaren 2an gai hau aztertzeke bilera egin zen foru aldundiko Bide Azpiegiturarako departamentuan. Oñatiko udaleko ordezkariak gain, ULMAkoak eta LKSkoak ere izan ziren bertan, eta elkarrekin lan egiteko borondatea adierazi zuten, arazo honi irtenbidea aurkitu ahal izateko ahalik eta denbora eperik motzenez.

Bide batez, udaleko Hirigintza saileko arduradunak uste dute, soluzioak kontuan hartu beharko lukeela San Pedroko autobus geltokiaren berreskurapena, erabiltzaileentzako segurtasun berme guztiekin. Gaur egun, baztertuta dago geltoki hori, gune horretan dagoen arriskuagatik.

Udaletxean ordezkariak duten bi udal taldeak (EH Bildu eta EAJ) bat datoz gai honek duen garrantzia eta lehentasuna azpimarratzerakoan.



Goribarrenko biribilgunea (goian) eta **Garibain**koa (behean) non egingo liratekeen erakusten da planoetan



HERRIBUSA

San Martin auzora ere iristen da orain

Otsailaren 13az geroztik San Martin auzora ere iristen da Herribusa. Zehazki, 'A' lineako autobusa da (Ugarkalde - Errekalde - Anbulategia - Ugarkalde ibilbidea egiten duena) San Martinera joaten dena. Ondoko ordutegian ikusten den moduan, txandaka egiten ditu Elkar Hezi-Eroski eta San Martin geltokiak; hau da, ordu batean Elkar Hezi-Eroskiko geltokira igotzen da, eta hurrengo orduan San Martinera.

Herribusa Elkar Hezi-Eroskiko geltokiraino igotzen ez den orduetan, Arantzazuko ama kaleko biribilguneko STOP-ean gelditzen da, erabiltzaileak Elkar Hezitik edo Eroskitik gertuago uzteko.

Bi geltokiak txandaka egitearen arrazoia da, ezin dela ziurtatu Herribusak 30 minutuko tartean geltoki biak egitea. Horrela, 'A' linea honetako beste geltoki guztietako ordutegia berdin mantentzen da.

'B' lineako autobusa (Ugarkalde - Anbulategia - Kasablanka - Errekalde) ez da San Martinera igoko, autobusak ibilbide luzeagoa egin beharko lukeelako, Aita Lizarralde kaleko norabide arauak errespetatzeko.



A linearen ordutegi berria Otsailak 13tik aurrera

A linea: Ugarkalde - Errekalde - Anbulategia - Ugarkalde

Astelerozetik Obitzalerara						
Ugarkalde	Errekalde	Kasablanka	Anbulategia	Elkar Hezi - Eroski	San Martin	
7:32	7:38	7:45	7:52	-	7:58	
8:00	8:07	8:15	8:22	8:55	-	
9:02	9:08	9:15	9:22	-	9:28	
10:02	10:08	10:15	10:22	10:55	-	
11:02	11:08	11:15	11:22	-	11:28	
12:02	12:08	12:15	12:22	12:55	-	
13:02	13:08	13:15	13:22	-	13:28	
14:02	14:08	14:15	14:22	14:55	-	
15:02	15:08	15:15	15:22	-	15:28	
16:02	16:08	16:15	16:22	16:55	-	
17:02	17:08	17:15	17:22	-	17:28	
18:02	18:08	18:15	18:22	18:55	-	
19:02	19:08	19:15	19:22	-	19:28	
20:02	20:08	20:15	20:22	20:55	-	

Larunbatetik						
Ugarkalde	Errekalde	Kasablanka	Anbulategia	Elkar Hezi - Eroski	San Martin	
9:30	9:38	9:45	9:52	-	9:58	
10:30	10:38	10:45	10:52	10:55	-	
11:30	11:38	11:45	11:52	-	11:58	
12:30	12:38	12:45	12:52	12:55	-	
13:30	13:38	13:45	13:52	-	13:58	

San Martin auzora iristen den 'A' linearen ordutegi berria

San Lorentzoko bidegorria eraiki eta urbanizazioa berritzeko lanak esleitu ditu udalak

» **BOST HILABETEZ LUZATUKO DIRA LANAK**

San Lorentzo auzoa obratan murgilduko da hurrengo bost hilabeteetan. Bi lan egingo dira: San Lorentzoko 1 zenbakitik Olapotoraino joango den bidegorria, alde batetik, eta, auzoko urbanizazioa berritzeko 8. faseko lanak, bestetik.

Bidegorria eraikitzeke lanak Egaralurrek egingo ditu, 198.163 eurotan (BEZ kanpo). Ondoko planoan ikusten den moduan, GI-2630 errepidearekiko paralelo egokituko da, eta tarterik luzeenean San Lorentzo aldeko espaloian egokituko da. Hala ere, 1 eta 2 zenbakidun etxe-blokeen aurrealdean bidegorriak aparkalekuen eremua hartuko du. Gaur egun Olapoton eta Lazarraga kalean (Maiztegiko etxeen paretan) amaitzen diren bidegorriak lotuko ditu.

Bestalde, San Lorentzoko urbanizazioa berritzeko 8. faseko lanak Ugarte Eraikuntza enpresak egingo ditu 197.793 eurotan (BEZ kanpo). Ondoko planoan ikusten den moduan, San Lorentzoko 10 eta 24 zenbakien arteko etxe-blokeen inguruko oinezkoen ibilbideak berrituko dira, irisgarritasun arauetara egokituz. Baterako zein besterako, bost hilabeteke exekuzio epea aurreikusten da. Zehaztu gabe dago oraindik, martxoan ala apirilean hasiko diren lanak.



Lazarraga eta Olapoto lotuko ditu S. Lorentzoko bidegorriak



San Lorentzoko 10, 14, 20, 21, 22, 23 eta 24 zenbakien inguruko urbanizazioa berrituko dute. Bidegorriak berriz San Lorentzo auzoa aldenik alde guratzatuko du.

'ATXORROTxEKO GAZTELUA. DENBORAREN TALAIATIK'

dokumentala emango du Oñatin Nabarraldek

Eskoriatzako Atxorrotx gainean gaztelua egon zen XII. menderarte, eta Nafarroako erresumaren tenentzia izan zen



Nabarralde Fundazioak eta Hernani Errotzen elkar-teak egin duten 'Atxorrotzeko gaztelua. Denboraren talaiatik' dokumentala emango dute Oñatin apirilean (data zehatza finkatu gabe dago).

Euskal Herriaren eta, zehazki, Nafarroako erresumaren historian Atxorrotzek izan zuen garrantzia azaldu, eta jende askorentzat ezezaguna den informazioa berreskuratu eta zabaltzea da dokumentalaren helburua.

Eskoriatzan dagoen tontorra da Atxorrotx. Gaur egun eraikin erlijioso bat dago bertan, baina elizaren teilatu azpiko harri landuek gaztelu zahar baten aztarna erakusten dute. "Ingurune hori Nafarroako erresumako parte zen garaiko eraikuntza zibila, suntsitua izan zena, zer ginen eta garen ahazteko" dio Beñi Agirrek, Nabaralaldeko historialariak.

Arkeologiak eta dokumentu historikoek erakusten dute Aitzin Arotik zegoela bizitza Atxorrotxen. Erromatarren garaiko zeramika arrastoak agertu dira, eta baita Antso VII.a Azkarra- ren garaiko txanponak ere.

Atxorrotx leku estrategikoa zen bailara osoa zaintzeko, Arabako lautada itsasoarekin lotzen zuen bidea kontrolatzeko. Horregatik, hain zuzen, oraindik Gipuzkoa esistitzen ez zenean, Atxorrotx Nafar erresumaren tenentzietako bat izan zen, Durango-Markina, Ipuzkoa eta Hernani ziren

bezalaxe. Lurralde eremu natural baten inguruan antolatzen zen bizitza sozial, erlijioso eta ekonomikoa administratzeko egiturak ziren tenentziak, eta tenentea zen erreinuaren ordezkaria. "Erresumaren barrualdeko eraikuntza zen Atxorrotzeko gaztelua, jendearen eta merkataritzaren joan-etorriak kontrolatzeko dorrea" dio Agirrek.



Atxorrotzeko gaztelua nolakoa izan zitekeen erakusten duen ilustrazioa (Iñaki Sagredo)

"Gure historia behar bezala ezagutuko bagenu, Atxorrotx Euskal Herriaren oroimen toki garrantzitsua izango litzateke"

garrantzitsua izango litzateke, (Amaiur, Noain edo Gernika diren bezala) zer garen eta nondik gatozen oroitaraziko ligu- keena" dio Agirrek.

GAZTELAREN INBASIOA

Baina 1199an Atxorrotzeko historia erabat aldatuko zuen gertaera jazo zen. Nafarroako erregea urruti zegoela baliatuz, Gaztelako Alfontso VIII.ak Araba inbaditu zuen, eta Atxorrotzeko bailaratik barrena, besteak beste Baionara iritsi ziren. Okupazio hau izan zen Nafarroaren eta euskal lurraldeen arteko zatiketaren hasiera edo jatorria.

Oraindik ez dakigu zer gertatu zen Atxorrotzeko gazteluan, baina garai hartakoak izan daitezkeen erreketak arrastoak eta gezi zartatuak agertu dira, eta Jimenez de Radak (1170-1247) historialari militarrek aipatzen du Gaztelak irabazitako gazteluen zerrendan.

"Gure herriaren historia behar bezala ezagutuko bagenu, Atxorrotx eta bere gaztelua Euskal Herriaren oroimen toki



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

DIRULAGUNTZA DEIALDIAK

Udaleko departamentu ezberdinek (Hezkuntza, Berdintasuna, Kirolak, Gazteria eta Garapenaren aldeko lankidetzak) ematen dituzten diru laguntzen deialdia egitea onartu zuen udalbatzak otsaileko osoko bilkuran. Deialdiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argiratu ondoren irekiko da eskaerak egiteko epea.

EMAKUMEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Bestalde, arrazoi ezberdinengatik (banaketa, dibortzioa, alarguntzea...) seme-alaben kargu egiteko nahikoa baliabide ez duten emakumei zuzendutako dirulaguntza deialdia ere egin du udalak. Deialdia aldizkari ofizialean argitaratzen denetik abenduaren 15era arte eskatu ahal izango dira laguntzak.

Foru aldundira zuzendu beharreko agiriak uddaletxean aurkeztu ahal izango dira

Udalak eta Foru Aldundiak sinatu duten lankidetzak hitzarmenari esker, herritarrok aukera izango dugu diputazioari edo udalari zuzendu beharreko eskerak, idatziak eta jakinarazpenak bi erakundeetako edozein erregistrotan aurkezteko. Administrazio ezberdinen aurrean egin beharreko tramiteak erraztea helburu duen hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du.

KOBAZULOEN VIII. EGUNA

Lurpea elkarteko 8 kobazuloetako sarrerak erdi prezioan egongo dira

'Lurpea' elkarteak osatzen duten zortzi haitzuloek (Ekainberri, Isturitz, Mendukilo, Pozalagua, Sara, Udazubi, Sorginen Koba eta Arrikutz) Kobazuloen Eguna ospatuko dute martxoaren 18-19an, eta hainbat ekitaldi antolatuko dituzte egun hori ospatzeko.

Oñati-Arrikutzeko kobari dagokionez, larunbatean bisita bereziak eta Paleo-tailerrak egingo dira (erreserba egitea beharrezkoa izango da: 943082000 / arrikutz@onati.eus). Bestalde, Lurpea-ko kobazuloak erdi-prezioan bisitatzeko aukera egongo da asteburuan zehar, eta, gainera, ekitaldietan parte hartzen duten bisitarien artean asteburu bateko egonaldi baten zozketa egingo da. Aukera ederra, beraz, seigarren kontinentea deskubritzeko. Informazio gehiago: www.lurpea.eus.

ESPELEOTXIKI / MARTXOAK 26 (15:30)

Martxoaren 26an Espeleotxiki saio berria egingo da, 6 urtetik gorako neska-mutikoei eta familiei zuzenduta. Histori-aurreko animalien erreplikak ikusi ondoren, pasabidea albo batera utzi eta kobazuloa bere egoera naturalean ezagutzeko aukera izango dute bisitatiek iraupena, 2,30 ordu). Izena emateko: 943082000 / arrikutz@onati.eus.



LAPIKO GORRI GASTROTEKA



eratemateko menua adibidea bat



etxean sukaldaturiko jakiak



ARDO ETA EDARIETAN ESKAINTZA ZABALA
(erreferentzia askotariko sorta handia)



40 LAGUNENTZAKO JANGELA ARGITSUA
(autoaren beharrik gabe, herrigunean kokatua)



On egin!



ETXEAN SUKALDATURIKO KARTA MODERNOA
(karta guztia, etxera eramateko prestatu dezakegu)

JAKIEN ELABORAZIOA ETA SALMENTA
(taldeentzako enkarguak hartzen ditugu)

ULTZEGIN 11, OÑATI • Tel. 943 50 20 70 •   

ASUN MINTZAKARA



Gipuzkoan desagertutzat jotzen zen landare espeziea aurkitu dute Oñatin

Urtarrilaren 29an egin zuten aurrikuntza, Aitzulo inguruan, Arabako Natur Institutua, Sestaoko Natur Zientzien Elkartea eta Oñatiko Naturzaliak taldeetako kideek Xabier de Arizaga herbario digitala bultzatzeko asmoz Oñatin egin zuten mendi irteeran. Asun mintzakara (*Urtica menbranacea*) izeneko landarea duela 150 bat urte jaso zuen botanikari alemaniar batek Gipuzkoako kostaldean, baina ordutik ez da berriro ikusi.



‘Zure erosketak etxean’ banaketa zerbitzua martxan da

EderMobilityServices eta *SD Logística* enpresen ekimenez ‘Zure erosketak etxean’ izeneko banaketa zerbitzua martxan da Oñatin. Ekimen honekin bat egin duten herriko dendetan (oraingoz 17 komertzio dira) egindako erosketak auto elektriko batean etxera eramango dizkigun zerbitzua da, berdin herrigunean bizi bagara edo landa auzoren batean. Hiru hilabeteko proba pilotoa egingo da, negozioa bideragarria den ala ez aztertzeko. Ondokoa bezalako irudi bereizgarria ikusiko dugu banaketa zerbitzua eskaintzen duten herriko komertzioetan.

Auzolana eta aisialdia uztartuz dator **Lekaixoka!** martxoan



Auzolanaren indarra zailtasunetatik irteteko. Horixe da aurtengo Kilo-metroak jaiaren bidez zabaldu nahi den mezua, Txantxiku ikastola bera ere auzolanetik sortu eta hazi zelako orain dela 50 urte.

Baina, zer da auzolana XXI. mendean? Nola bizi dugu gaur egun auzolana? Galdera horien inguruan hausnarketa egin eta, zehazki, auzolana aisialdiarekin nola uztartu daitekeen aztertzeke hainbat ekitaldi antolatu ditu KMK-2017 lantaldeak martxoarako: **Berdintxiketan** lasterketa mistoa (martxoak 10), Enpresagintzarekin batera antolatutako lasterketa honetan, aurtun, lehen aldiz, 5 urte eta DBH arteko ikasleek parte hartzeko aukera izango dute. **‘Kilometroak 40 urte’** erakusketa kultur etxean (martxoak 13-26); jai honen 40 urteko ibilbidea erakusten duten dokumentuak. **‘Aisialdia eta mendizaletasuna’** hitzaldia (martxoak 15). Mendizaletasuna galtzeko zorioan gaude? Gai honen inguruan hitz egingo du Luis Mari Zulaikak (kultur etxean, 18:30). **‘Haurren hiria’** proiektua (martxoak 20); iazko Bergarako Kilometroetan haurren beharretara egokitutako espazio autogestionatu bat sortu zen. Esperientzia hura ezagutu eta Oñatin martxan jartzeko aukera aztertuko da (kultur etxean, 18:30). **‘Jai eredu berriak aztertzen’** (martxoak 25); Kilometroetan eta edozein herritan antolatzen den jai ereduaren inguruko hausnarketa, *world café* formatuan (Gaztelekuan, 9:00-14:00)

Sozioekonomia indartzeko ‘Laguntza Plana’ proposatu du EAJk

Tokiko ekonomia eta enplegua sustatzeko helburuarekin, lau lan-ildo jorratzea proposatu du EAJ-ren udal taldeak: enplegua eta ekintzailetasuna bultzatzeko planaren garapena; Oñatiko Turismo Plan Estrategikoaren berrikuntza; merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko ‘Lehiatila Bakarra’ udal zerbitzuaren ezarpena; eta tokiko merkataritzari, autonomoei, lehen sektoreari eta ETEei zuzendutako berrikuntzarako aholkularitza sortzea.

Azken honen harira, ‘e-Commerce’ edo merkataritza elektronikoa sustatzeko laguntza programak indartzea proposatu dute jeltzaleek, eta horretarako bi bide jarri dituzte mahai gainean: banakako aholkularitza zerbitzua, edo Oñatiko saltokientzako plataforma komuna sortzea.

Eta hori guztia bideratzeko tresna egokiena ‘lehiatila bakarra’ zerbitzua dela berretsi du EAJk. “Zerbitzu hori martxan jartzeak, sektore hauek garai berrietara egokitutako zerbitzua eskaintzeko aukera izatea eta interneten duten presentzia areagotzea ahalbidetuko luke” jeltzaleen iritziz.

ANE MERTZERIA

- Josteko zarak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuen fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Manises hiriko Seme Kuttun izendatu dituzte Garai eta Lazkanoiturburu oñatiarrak

» 49 urte daramate Valentziako hirian. Apaiz-langile bizimodua egin dute, herri xehearen eskubideak defendatuz.

Jose Luis Lazkanoiturburu (Oñati, 1929) eta Anton Garai (Oñati, 1938) agustinoek ia 50 urte daramate Manisesen (Valentzia), eta hango auzo pobreetan egindako lanak bertakoen aitortza merezi izan du. Duela hiru urte, Esquerra Unidak ematen duen 'Premio 14 de Abril' saria jaso zuten, eta orain Maniseseko 'Seme-Kuttun' izendatu ditu udalak.

1968an iritsi ziren Garai eta Lazkanoiturburu Manisesera. Irakasleak ziren agustinoen seminarioan, baina hemengo lana utzi eta Valentzia aldera jo zuten, lagun batzuk tarteko, eta Maniseseko *Barrio del Cristo* auzo pobrean hasi ziren lanean. Inguruko parrokia ezberdinetako ardura eman zieten, baina ikusita elizara inor gutxi joaten zela, auzotarren bizimodu bera egitea erabaki zuten, apaiz-langile bezala, bertako apaiz batzuk eta zenbait jesuitekin batera (15 bat lagun denera).

Eraikuntzako pioi lanetan, meloiak eta sandiak saltzen, barrendero... Beste edozein auzotarrek bezala egiten zuten lana goizez, eta arratsaldez parrokia atenditzen zuten. Langile klasearen esplotazioa salatu eta beraien eskubideen alde borrokatu zuten.

Orduko eliz agintariek eta

eskuineko jendeak ez zuen begi onez ikusten apaiz-langileen jokabidea. Gainera, euskaldunak izanik, ETArekin loturaren bat ote zuten susmoa ere zabaldu zen, eta aldiro aldiro Goardia Zibilaren bisita izaten zuten.

"Inportanteena da, leialak izan garela gure idealekin, gure konpromisoarekin eta gure federekin" adierazi zuen Anton Garaik, Maniseseko udalaren omenaldia jaso berritan. "Burua tente, esan dezakegu pobreen eta marginatuen ondoan egon garela, eta pertsonak duinago bihurtzen lagundu dugula. Pozik gaude, gure bizitzek zentzua izan dutela ikusten dugulako, eta gure lanak eta konpromisoak Maniseseko herritar askoren errekonozimendua jaso duelako". 400 bat Manisero bildu ziren oñatiarrei eskainitako omenaldian.



Alkatearen eskutik jaso zituzten oroigarriak Lazkanoiturburuk eta Garaik. Behean, Antonio Garaik irakurritako poesia, esker ona adierazteko.

PABLO NERUDAREN 'Oda a la alegría'

*Como la tierra eres necesaria.
Como el fuego sustentas los hogares. Como el pan eres pura.
Como el agua de un río eres sonora.
Hoy, alegría, encontrada en la calle, lejos de todo libro, acompáñame: contigo quiero ir de casa en casa, quiero ir de pueblo en pueblo, de bandera en bandera. No eres para mí solo.
A las islas iremos, a los mares. ¡Contigo por el mundo!
¡Con mi canto!, ¡Con el vuelo entreabierto de la estrella, y con el regocijo de la espuma!
Voy a cumplir con todos, porque debo a todos my alegría. No se sorprenda nadie porque quiero entregar a los hombres los dones de la tierra, porque aprendí luchando que es mi deber terrestre propagar la alegría. Y cumplo mi destino con mi canto.*

LURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Eusko Jaurlaritzako argazki artxiboa. Jon Bernardez - Irekia.

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Gizonezkorik gabeko berdintasuna

Jon Igartua

Udaberri honetarako, Oñatiko Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu Jabetze Eskola programa barnean. Hala nola, Asertibitate eta gatazka konponketa tailerra, Jendeaurrean hitz egiteko tailerra, Eskalada tailerra, Ekonomia feminista, Etorkinek ikasketak homologatzeko ikastaroa... guztiak interesgarriak iruditu bazaizkit ere, bereziki Asertibitatearen ingurukoak eta ikasketen homologazioaren ingurukoak izan dira interes gehien piztu dizkidatenak. Orain dela gutxi hurbiletik ezagutu ditut beraien ikasketak homologatzeko hainbat zailtasun izan dituzten bi etorkinen kasuak (biak gizonetzkoak).

Bestalde, Asertibitatearen inguruan hainbat lankidek parte hartu dute, maila pertsonalaz gain, lan harremanen egunerokotasunerako, baliagarriak liratekeen ikastaroak iruditu zitzaizkigun. Baina hara nire sorpresa! Bakarrik emakumeentzako! Garbi azaltzen zen hizki txikitik. Badirudi gizonetzkoak ez dugula Asertibitate ikastaro beharrik! Berezkoa omen daukagu, edo badirudi gaur egungo gizartearen Asertibitate balioak barneratzeko erraztasun gehiago dauzkagula! Genero berdintasuna guztion ardura zela uste nuen, ez bakarrik emakumeena. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunek dirautelako, gizonen inplikaziorik gabe ez da posible berdintasuna. Berdintasuna lortzeko pertsona guztiekin zerikusia duelako eta denei onurak ekar diezazkigulako, gizonen kontzientziazioa eta parte hartzea lortzeko, emakumeentzat proposatzen diren ikastaroak denontzat

izatea eskatzen diot Oñatiko Udalari, sexu bereizkeriarik gabe. Emakumeen aldeko diskriminazio positiboa erabiltzea egokia bada ere, berdintasunean kontziliazioa lortu nahi badugu gizonetzkoen parte hartzea beharrezkoa iruditzen zait.

LASTARBIDEAN lasterketa 2017

Jose Mari Zugasti (Lasterbidean Nazio Elkartasun Lasterketa)

Aurtengo ekainaren 4an, OÑATIN antolatuko dugu LASTARBIDEAN nazio elkartasun lasterketa. Kirolaren eremutik eginikoa eta kirolean oinarritutako elkartasun herri ekimena da gurea. Euskal errepresaliatu politikoen eta beraien gertukoaren eskubideen aldeko elkartasun adierazpen zintzoa egin nahietik sortu zen orain bost urte. Bost urte hauetan zehar, herrialdez herrialde ibili izan gara antolakuntzan. Lehen edizioa Oiartzunen, ondoren Larrabetzu, Berriozar eta Araian ospatu izan dugu nazio elkartasun lasterketa. Berriro ere Gipuzkoara bueltatuko gara, Oñatira zehazki. Izan ere, ehunka dira beren etxetik urrun bizi diren euskal herritarrek: espetxean, ihesean edota deserrian. Egun, sinestezina badirudi ere, beraien eta beren senideen eskubideak urratuak izaten jarraitzen dute. Oraindik ere egoera larria bizi dugu eta gure elkartasun urrats honen bidez ere egoera gogor hau gainditzen lagundu nahi dugu.

Ekainaren 4an egun osoko egitaraua antolatuko dugu. Bi lasterketa, korrika luzea eta motza, patin lasterketa, sari banaketa, Etxeraten ekitaldia, bazkari herrikoia, kale anima-

zio, haurrentako jolasak, kontzertuak... baina guzti hau aurrera eramateko bolondres askoren beharra daukagu, ZURE BEHARRA DAUKAGU, era indibidualean, taldeka, kuadrilla mailan, ...gurekin batera auzolanean elkartasun urratsa emateko prest izanez gero ongi etorriak izango zarete. Pausoak ekarri bait dezake pausoa... Joseba, Xabier, Xabin, Alberto, Axier, .. errepresaliatu guztiak etxerako bidean jartzeko garaia da.

Laister etxerako bidean, laister etxean!!!

Euskal Udalekuak: Goñi, Abaigar eta Bernedo

Oneka Anduaga, Maria Apaolaza eta Jon Ander Errasti, Euskal Udalekuetako biru etxeetako ordezkariak

Badira hainbat urte euskal udalekuen atea zabaltzen zitzazkigula.

Hainbat urte Goñi, Bernedo eta Abaigar ezagutu genituela eta haurrek izanda, gerora ere, euskal udalekuetan jarraitzea erabaki genuela.

Euskal udalekuen bidean sorturiko esperientziatik, hainbat balore bereganatu ditugula jabetzen gara gaur egun, zeintzuek gure egunerokotasunean benetako garrantzia eta eragina duten. Ikasi dugu ondokoa errespetatzen, laguntzen, berdintasunean bizitzen, ingurua zaintzen eta maitatzen. Eta nola ez, euskaraz jolasten, bizitzen eta gozatzen.

Euskara dugu udalekuen ardatz nagusi. Hainbat ekintza eginez berau bultzatzeko, hala nola jolasak, tailerrak, kantak, dantzak... Horrekin batera euskal kultura ere helaraztea du helburu.

Euskal herri osoko umeak bertarat-

zeak aberastasun handia ematen die udalekuei.

Alde batetik, euskalkiei begiratur aniztasuna dakar; eta bestetik, giro erdaldunean bizi diren umeak giro euskaldun batean murgiltzen ditu aukera berriak eskainiz.

Kontuan hartu behar dugu hiru herri txiki hauek natura ingurunean kokatuta daudela. Haurrek naturaz gozatzea beste helburu bat izanik. Mendi martxak, basoan jolasak, paisaia, erreka banoak... Euskal udalekuek hirian bizi diren haurrentzat naturaz gozatzeko aukera ere dakarte.

Giro ederra sortzen da kide guztien harremanetan, berdintasuna elikatuz.

Udalekuak, orokorrean, lagun berriak ezagutzeko tresna paregabea dira, harreman laburrak, baina ahaztezinak. Hala ere, nabarmendu nahiko genuke, gure esperientzia pertsonalera bueltatuz, haur moduan elkar ezagutu genuen askok gaur egun elkarrekin jarraitzen dugula, euskal udalekuen kide izaten, harreman estu baten fruitu.

Berebiziko garrantzia daukan boluntario lana ere aipatu nahiko genuke. Euskal udalekuek ibiltzen garen begirale, sukaldari eta milook inolako diru saririk gabe aritzen garela lanean. Oso garbi daukagu euskal udalekuekin bestelako sariak lortzen ditugula, garrantzitsuagoak diren sariak, inon idatzi ez diren sariak. Garbi daukagu maite dugulako egiten dugula, gozatu egiten dugula eta lortzen dugun sari bakoitza gure oroitzapenetan gordeko dugula. Beraz, animatzen zaituztegu euskal udalekuek izena ematera eta gure zelai zabalean zuen lorea landatzera: www.udalekuak.eus

Esker onez, Karitateko ahizpei

Lourdes Idoiaga, Marijo Etxegoien eta Tina Kortabarria, EAJ-PNVren Juntakideak San Martin Egoitzan

Haurtzarotik gure artean sentitu ditugu beti Oñatin Karitatearen Ahizpak kongregazioko mojak. Gogoan ditugu haien buruko estalki hegaldunak. La Milagrosa eskolako irakasle gisa ere ezagutu genituen eta, Eguberri garaian jartzen zuten jaiotzak liluratu gintuen urtez-urte.

Denbora igaro ahala, oñatiarrok mojen bokazio eta izateko arrazoia eza-

Artixa taldearen oharra, argazki zaharren erakusketaren harira

Xabier Uagrite, Artixa taldearen izenean

Otsailaren lehenengo hamabostaldian Kultura etxean Artixa taldeak antolatutako ARGAZKI ZAHARREN ERAKUSKETAK izan duen arrakastaren inguruan, honako hau adierazi gura dugu:

- Eskerrik beroenak erakusketan izan diren bisitariei (guztira 1.000 pertsona inguru izan dira, 200 ikasle goizetan, eta 800 bisitari arratsaldeetan), eta egin dizkiguten iradokizunak kontuan izango ditugula hurrengo baterako.

- Eskertzekoa da, baita ere, hau guztia posible egin duten argazkilariak gogoratzea. Kasu askotan ez dakigu argazkilaria nor den, baina ezin ditugu aipatu barik utzi gureak: A. Arlanzon, J.M. Arzuaga, P. Elorza, eta J.L. Plazola.

Eta, **eskari bat** egin gura dugu. Jende askok izango ditu argazki zaharrak etxean, baserrikoak, kalekoak, jaietan ateratakoak, familiakoak, eta abar. Gu, **ARTIXA taldekook**, prest gaude uzten dizkigutenen argazki guztiak gure artxibora gehitzeko. Eta horretarako, gura duenak, eroan ditzala argazki zaharrak sobre batean bilduta, izen-abizenak eta telefonoa adierazita, eta argazki bakoitza identifikatuta (ze urtetakoa den, pertsonak nortzuk diren, eta abar), Kultura etxera. Han, harrerakoak Artixakooi abisatuko digu, eta gure konpromisoa digitalizatzea eta jabeari argazkiak itzultzea izango da. Horrela gure ondarea handitzen eta edertzen joango da, eta hurrengo baterako beste erakusketa batzuk ere egiteko aukera izango dugu.

'CO-ESCUCHA' TAILERRA.

MARTXOAK 11, ELTZIA, 18:00

BiziPoz programatik irtendako bi proiektuetako bat da 'Co-escucha' tailerra. Elkarri entzuten ikasi eta pertsonen arteko komunikazioa hobetzea da asmoa. Martxoaren 11n izango da hurrengo tailer irekia, Eltzian (18:00-20:00).



Lehenengo saioan parte hartu zuen taldea

gutu genuen: behar gehien duten pertsonak, behartsu eta gaixoak, zaintzea. Guztiok izan gara mojen lanaren lekuko: etxez- etxe, eta bereziki gauez, gaixotasunaren unerik gogorrenetan zein hiltzorian kontsolamendu espiritual eta laguntza eskaintzea gaixoei. Baita, atse-denaldia trantze txar hori pasatzen hari ziren senitartekoei ere.

Duela urte asko hasi ziren mojak pertsona behartsuak, gaixoak, babesgabek betasun edo mendetasun egoeran daudenak, laguntzen. Gaur egun zerbitzu hori Osasun eta Gizarte Zerbitzuetatik bideratzen den laguntza unibertsala bilakatu bada ere, horrelakorik ez zegoenean, mojek bere bokazioa eskaini zuten behartsu eta baztertuak zaintzeko. Horregatik, Karitateko Ahizpak egungo sistemaren aitzindariak dira eta berariazko aitortpen hori eman nahi diegu.

Gainera azken 10 urteotan San Mar-

tin egoitzaren batzorde-kide gisa, egunez nahiz gauez, bertan bizi diren adineko pertsonak zaindu eta maitatzeko mojek egindako isilpeko lana, eta guztiei eskainitako babes espiritual eta giza berotasuna, egiaztatzeak aukera eta zortea izan dugu. Eta lan hori ere ikustarazi nahi dugu lerro hauetan.

Orain, kongregazioak Oñati uzteko hartu duen erabakiaren lekuko gara. Aldaketa guztietan gertatzen den moduan San Martingo egoiliarrek ere mojen irteerak utzitako hutsune emozionala sentituko dute. Hala ere, ziur gaude egoitzako gainerako langileek –erizainek, sukaldariek, harrerakoek, terapeutek, zuzendari eta koordinatzaileek, etab...– erakutsitako profesionaltasunari esker, orain arteko kalitatezko zerbitzua bermatzen jarraituko dutela.

Eskerrak bihotzez karitateko moja bakoitzari.

“Bai baina...”

‘Hautsak harroketan’

ERASO MATXISTA BAT EGITEN DUENAK EZIN DU BURUTIK SANO EGON



Irudia: Xanti Ugarte

Hau esatean erasoak kasu isolatuak direla esaten gabiltza, pertsona baten erokeria uneagatik gertatzen direla. Baina eraso matxistak ez dira kasu isolatuak, gizarte matxista baten ondorio baizik, zeinak gizonen emakumeenganako boterea ahalbidetzen duen.

Erasotzaileak ez dira zer egiten duten ez dakiten "eroak". Zuk bezala lana egin eta lagunekin kalera ateratzen diren pertsonak dira.

Munduko Osasun Erakundearen ikerketa baten arabera, eraso matxisten %10a baino gutxiago dira gaixotasun psikopatologikoek eragindakoak.

Erasotzailea ez badago burutik ondo, zergatik erasotzen ditu emakumeak bakarrik?

POBREZIA ENERGETIKOA

Pasa den urtarrilean, argindarraren prezioaren izugarrizko gorakadaren ondoren, komunikabideetan gori gorian egon zen pobrezia energetikoaren inguruko eztabaida. Ez da berria, sarriro ateratzen den zerbait baizik, eta ez da harritzekoa. Etxeetan tenperatura egokia edukitzea oinarritzko premia bat da, guztion eskubidea, eta agerian jarri da kasu askotan ez dela betetzen.

Gobernuak eta arduradunek emandako arrazoiak –euri gutxi egitea, erregai fosilen prezioa, atzerriko konexioak, etabaitzakiak besterik ez dira. Arrazoiak, jakina, beste leku baten aurkitu behar dira, argindarraren merkatuan, egiturari, eta funtzionamenduan, hain zuzen.

Ez da erraza ulertzea bere funtziona-

Luis
Guridi




mendua, are gutxiago lau hitzetan azaltzea. Oligopolio bat da -gutxi batzuk kontrolatzen dute, ekoizpena, banatze eta merkaturatzearen gehiengoa-, ez dago gardentasunik, prezioak ezartzeko sistema -sorkuntza kostuak, kostu erregulatuak eta zergak- oso iluna da, eta horrek manipulazioa ahalbidertu eta errazten du. Nola da posible Europar Batasuneko herrialde handien artean bigarren garestiena izatea?

Energia berriztagarriak jarri behar dira sistemaren erdian; autokontsumoaren aurkako azken legea –ED 900/2015- indargabetu beharra dago, berriztagarrien erabilpenak gora egin dezan, bereziki fotovoltaikoa. Nola daiteke Alemanian, Erresuma Batuan edo Frantzian eguzki

energiaren ekoizpena Espainiakoa baino handiagoa izatea? Trantsizio energetikoa ezinbestekoa agertzen da klimaren aldaketaren aurkako nazioarteko adostasunak bete nahi badira. Energia berriztagarriak bultzatzea, energia kontsumoaren eraginkortasuna eta aurrezpena sustatzea, eta gizarte kontrola areagotzea dira bideak. *Som Energia*, Katalunian 2010ean sortutako argindar kontsumo kooperatiba, eta gure kasuan GoiEner (Energia Berriztagarrien Sorkuntza eta Erosle Kooperatiba), horren bi adibide garbiak ditugu.

Gutxiengo argindarra bermatzea zerbitzu publiko gisa ulertu behar da. Horretarako, pobrezian dauden etxeetan tarifak nabarmen jaitsi beharko lirateke eta enpresa hornitzaileek deskonexioak egin aurretik, zerbitzu sozialen baimena izan beharko lukete.

Eta Garoña betirako itxi behar da, berehala. Erabilpen epeak bukatzen zaizkienean, beste zentral nuklearrak ere bai.



- Arazerixan -

Udalekuak 2017

Urtero bezala, aurtengo uztailean ere, eskaintza ezberdinak proposatuko ditu Oñatiko udaleko Haur eta Gazteria sailak. Besteak beste, Udaleku Irekiak eta Arte udalekuak izango ditugu.

Udaleku irekiak:

Lagunartean Oñatiko txoko ezberdinak ezagutuz eta euskaraz, gozatzeko aukera eskaintzen dugu. Uraren eguna, eskulanak, jolasak, ibilaldiak, kanpaldia, etab. egiteko aukera izango dute haurrek. Betiere, ahal den neurrian, beraien nahi eta gogoetara egokituz.

Aurten ere, Oñatiko Gaztelekua izango da udalekuen elkar-gunea, eta 4 urtetik 12 urte arte (2005-2013an jaiotakoak) izango dira protagonista. Hona hemen beharrezko informazio guztia:

- **NOIZ:** Uztailaren 3tik 28ra.
- **ORDUTEGIA:** 10.00-13.00
- **ADINA:** 2005-2013an jaiotakoak (biak barne)
- **TOKIA:** Gaztelekuan
- **MATRIKULA:** Lehenengo haurra 70€, bigarrena 60€, hirugarrena 50€, laugarrenetik 0€
- **IZENA EMATEKO EPEA:** Martxoaren 6tik martxoaren 24ra (biak barne)
- **IZENA EMATEKO MODUA:** Behin ordainketa eginda (izen-emate orrian zehaztuko da kontu korronteko zenbakia), ordainketaren ziurtagiria eta izen emate orria datu guztiak beteta, Udaletxera (9.00-14.00) edota Txaloka ludotekara (16.45-19.45) eraman beharko da.
- **ZAINTZA ZERBITZUA:** 8.15-10.00 bitartean Gaztelekuko sotoan izango da (50€). Behin Udalekuetan parte hartuko duten haurren kopuruak jakinda, Udalak, hezitzaileen kontratazioari ekingo dio, martxoaren erdialdera.

ADI MARTXOAN!!

- Martxoan, Haur eta Gazteria sailak, Emantzipaziorako diru-laguntza lerroa jarriko du martxan hirugarren urtez, gazteen alokairua laguntzeko helburuarekin.
- Sormen diru-laguntzak ere jarriko ditu martxan. Sormen diru-laguntzen barruan CD-ak, audiobisualak, eta abarren publikazioa lagunduko da. Baina baita ere haur eta gazteriarekin lotutako elkarteek eskatzeko aukera izango dute.
- Udan begirale bezala izena emateko epea zabalduko da. Informazio gehiago Gaztelekuan.

MARTXOAN...

GAZTELEKUAN: [9] Kontzertua; GBH eta The Friday's crew. Sarrerak: Boga, Pako eta Ona. [17] Kontzertua; Lagrimas de Sangre eta Sangre de Mono taldeekin. Sarrerak: Ona, Arrano eta lds.oinatiko.gaztelekuan@gmail.com. **KUBOAN:** [19] Pelikula. **TOPALEKUAN** [7tik 19ra] Ingu-rumen astea.



Helburu ezberdinak, puntu premia berbera

Liga nazionalerako igoera fasean sartu nahi du eskubaloi taldeak, eta Ohorezko mailako jeitsiera postuetatik irten nahi du futbol taldeak

ESKUBALOIA. Azkenengo bi partiduak galduta, sailkapeneko lehen postua oso zail jarri zaio Aitor Aranburuk zuzentzen duen taldeari. Sei jardunaldi gelditzen dira liga amaitzeko, eta liderrak, Basaurik, bi punturen aldea ateratzen dio Aloñari, eta elkarren arteko gol *average*-a ere, bizkaitarren aldekoa da. Gogoratu, txapelduna zuzenean sailkatuko dela 1. Nazionalerako igoera fasea jokatzeko, eta, aldiz, liga txapelketa 2. eta 5. postuen artean amaitzen duten taldeen artean beste plaza bat jokatu da, kanporaketa bidez, igoera fasean sartzeko. Oraindik, esan bezala, sei partidu geratzen dira liga amaitzeko, eta Aloñak partidu guztiak irabazten saiatu behar du, lehen postua berresku-ratzen saiatzeko eta, ezinezkoa bada, bigarren postuari eusteko. Zaletuen babesa ere inportantea izango da.

FUTBOLA. Kolpe gogorra jaso zuen Aloña Mendik joan den igandean Azkoagainen, 93. minutuan, partiduko azken jokaldian lortu zuelako berdinketaren gola Oiartzunek. Horrenbestez, Gotzon Urzelaik zuzentzen duen taldeak jeitsiera postuetan jarraitzen du, sailkapeneko azken aurreko tokian. Zorionez, salbaziorako postuekiko puntuen aldea ez da oso handia (sei talde daude bost punturen barruan) eta, beraz, ezin da itxaropena galdu. Liga amaitzeko geratzen diren 11 partiduetatik 6 etxean jokatu behar ditu Aloñak, aurkari zuzenen kontra gainera. Beraz, kanpoko partiduak ahaztu barik, garbi dago Azkogaineko neurketak erabakiorrak izan daitezkeela, eta, ildo horretan, direktibak kanpaina berezia antolatu du *#EutsiAloña* lelopean, ahalik eta zaletu gehien eramateko Azkoagainera.



Otsaileko mendi irteerako argazkia

MENDI IRTEERA / martxoak 19

Entzia mendikatera

Arabako lautada gainean dagoen Entzia mendikatea zeharkatuko du Aloña Mendik hile honetarako antolatu duen mendi ibilaldiak (14,5 km). Mirutegi (1.165m) eta Ballo (1.197m) tontorrak igoko dituzte, eta Mendiluzeko dolmena ikusteko aukera ere egongo da. Goizeko 8etan irtengo da autobusa postetxe parean. Izena emateko epea: martxoak 16, Aloña tabernan, edo alonamendi.mendi@gmail.com. Prezioa: 10€.

caravanas  oñate

• CALDARAGINTZA - CALDERERIA
Otsadi zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Otsadi zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



Martxoaren 12an jokatu da Oñatiko Duatloia

Gipuzkoako eta Euskadiko distantzia motzeko txapelketa izango da

Ohi ez bezala, igande goizez jokatu da aurten Oñatiko Duatloia, 26. edizioa, eta distantzia motzeko Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketa izango da. Beraz, momentuko duatletarik onenak ikusteko aukera izango dugu. Lehiakideek egin beharreko lana haxe izango da: 10 kilometro korrika, 36 bizikletan eta beste 5 korrika. Bizikletako partziala, iaz bezala, Oñatitik irten barik egingo da: Foru enparantzatik San Prudentzioraino joango dira lehiakideak, eta itzulerakoan Lamiategi-Arregiko aldapa gogorra igo beharko dute. Bi buelta emango dizkiote 18 km.-ko zirkuitoari. Korrikako saioa ere, ohi bezala, herri barruko kaleetan izango da. Goizeko 10:30etan emango zaio hasiera emakumezkoen probari, eta 10:45etan gizonezkoari.

Miren Josune Bikuña sasoi onean. Azpimarratzekoa da orain arteko duatloietan oso maila onean aritu dela Atxintxika Debagoiena taldean ari den Miren Josune Bikuña oñatiarra. Sopelako duatloian 5. sailkatu zen, eta Mungiakoan 8.. Talde berean ari den Xabier Luis oñatiarra 8.a izan zen Sopelan, eta Mikel Ugarte (Saltoki Trikideak) 6. Mungian.

Kadete mailako neskak Euskal Ligara

Aitor Billarrek zuzentzen duen Kadete mailako eskubalo taldeak Euskal Ligan jokatzeko txartela lortu zuen Zumaian jokaturako igoera fasean. Pulporen aurka galdu (16-23) eta Usurbilen (19-16) eta Urdaibairen (31-22) aurka irabazita lortu zuten igoera. Mutilen taldeak ere jokatu zuen igoera fasea, baina sari gabe geratu ziren.



J.M. RUIZ, PRESIDENTE. Jose Manuel Ruiz de Cenzano oñatiarra Euskadiko Eskubalo federazioko presidente karguan berretsi dute beste lau urterako, botoen %80ekin.

Ekintza bereziak Zubikoa kiroldegian

KORRIKALARIENTZAKO MINTEGIA. Korrikalarientzako tailera teoriko-praktikoa, martxoaren 24an kiroldegiko fitness gelan. Bazkideentzat dohainik. Plaza mugatuak.

ARETO BIZIKLETA ETA ZHUNBA MARATOIAK. Martxoaren 25ean, Zubikoa kiroldegian. Goizez (10:00-12:00), III. Zhunba maratokia egingo da, 120 plazarekin. Izen-ematea, hilaren 22rarte (www.kirolprobak.com). Arratsaldean (16:00-19:00) Oñatiko VII. Areto Bizikleta Maratokia egingo da, 140 bizikletarekin. Izen-ematea, hilaren 22rarte (www.kirolprobak.com).

Bi domina atletismo txapelketetan

Aloña Mendiko korrikalari gazteek bi domina lortu zituzten otsailaren 19an Hernani jokaturako Gipuzkoako txapelketan. Igor Mugarza bigarren sailkatu zen Infantil mailan, eta Enaitz Arabaolaza hirugarren Alebinetan.

M^o SOL RAMOS AZPITXAPELDUN.

Marisol Ramos korrikala oñatiarra Espainiako azpitxapelduna izan zen otsailaren 5ean Granollersen jokaturako maratoni erdiko txapelketan (1:28:15), +55 urteko beteranoen mailan.



Kontzeju I | patik

Sei domina igeriketan

Ainhua Redinek lau domina (urrezko bi eta zilarrezko eta brontzezko bana) eta Aitor Tatiegik bi (urrezko eta brontzezko bana) lortu dituzte neguko Gipuzkoako txapelketan.



Hiru piloto oñatiar sarituak

Joseba Astondoa, Maider Usandizaga eta Monika Muñoz oñatiarrak sarituak izan ziren, iazko denboraldiko piloto eta kopiloto onenak saritzeko Euskadiko Automobilismo Federazioak otsailaren 20an egin zuen ekitaldian.



ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIAK
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa
- ...

San Lorenzo 4 behe | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com



‘DOMEKETARROK’

musikaz gozatzeko asmoz sortutako taldea

Domeketan elkartzen dira entseguak egiteko. Hortik taldearen izena. Bederatzi lagun dira, musikaz gozatu eta gozarazteko asmoz elkartu direnak. Urte eta erdi daramate lanean, eta oso maila polita erakutsi dute orain arteko kontzertuetan.

2015eko irailean sortu zuten ‘Domeketarrok’ taldea. Sei lagun ziren hasieran: Santi Mendiola eta Benjamin Maiztegi (saxoak) Imanol Mugarza (tronboia), Lorea Gomez eta Bixente Ibarrondo (klarineteak) eta Idoia Elkorobarrutia (baxua). “Musika eskolako *Haize* Taldeko beteranoak ginen. Asteroko entsegua motz geratzen zitzaigun; zerbait gehiago nahi genuen, eta taldea sortzea pentsatu genuen”

azaldu digu Bixente Ibarrondo taldeko zuzendariak.

Seikote bezala eman zuten aurreneko kontzertua 2015eko abenduan, Eroskin, Gabon giroko doinuekin. Gero, taldea osatu beharra zegoela ikusita, Beñat Markinez (klarinetea) eta Nerea Alonso (zeharkako txirula) batu zitzaizkien, eta Alazne Elkorobarrutia (ahotsa) izan da azken inkorporazioa, bederatzikotea osatuz.

Domekak ziren entseguak

“Udalak antolatzen dituen musika jardunaldietan parte hartzea gustatuko litzaiguke. Erronka polita izango litzateke taldearentzat

egiteko taldekideek libre zuten egun bakarra, eta hortik dator taldearen izena. Gaur egun ostiraletan ere elkartzen dira. “Ilusio eta gogo handiz ari gara lanean, doinu berriak ikasi eta egunetik egunera hobetzeko ilusioz” dio Ibarrondok.

Ildo horretan, eskerrak eman nahi dizkiote, bereziki, José de Azpiazu musika eskolako zuzendaritzari, “samurtasun guztiak ematen dizkigutelako entseguak egiteko, eta materiala ere (mikrofonoa, anplifikagailua...) utzi izan digutelako arazo barik”.

Pop estiloko musika jotzen dute batez ere. *Eric Clapton*, *Leonard Cohen*, *Frank Sinatra*



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Lamañu buzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Baserriko agia, egurrezko labeon



edo *Ken Zazpi* bezalako taldeen abestiak interpretatzen dituzte, eta baita filmetako soinu banda ezagunak ere. Bixente Ibarrondok egiten ditu partituren moldaketak.

Tarteka, musika klasikoari keinuak egitea ere gustatzen zaie, Ibarrondok esan digunez. "Jende askok ez dauka musika klasikoa entzuteko ohiturarik. Aspergarria dela uste dute, baina, adibidez, Otamendi tabernan eman genuen kontzertuan *Shostakovich*-en *bals* bat jo genuen, eta jendea asko gustatu zitzaion".

Formato txikiko kontzertuak eman izan dituzte orain arte; Otamendi eta Olakua tabernetan, Aretxabaletako egoitzan, Elkar Hezi ikastetx-searen elkartasun azokan eta Arrasateko Fagor-en, besteak beste. "Soinu ekiporik ez daukagu oraindik, eta, beraz, taberna edo areto txikietan eta espazio bilduetan jotzen dugu. Alde horretatik

Domeketarrok
taldea: Lorea Gomez,
Bixente Ibarrondo eta
Beñat Markinez
(klarineteak) Santi
Mendiola eta Bejamin
Maiztegi (saxoak),
Imanol Mugarza
(tronboia), Idoia
Elorobarrutia (baxua),
Nerea Alonso
(zeharkako txirula) eta
Alazne Elkorobarrutia
(ahotsa).



pittin bat mugatuta gaude, baina, oraingoz gustura gaude horrela. Taldea egonkortu eta sendotu nahi dugu aurrena, eta aurrerago ikusiko dugu beste zerbati behar dugun ala ez".

Oraindik lotu barik dagoen arren, badirudi San Migel Txiki jaietan ikusi ahal izango ditugula, eta beraiek behintzat prest eta gogotsu daude beste hainbat lekutan aritzeko ere. "Udalak antolatzen dituen Musika Jardunaldietan jotzea gustatuko litzazuke" aitortu digu Ibarrondok. "Erronka polita izango litzateke guretzat, eta gogotsu helduko genioke".

Lehenengo kontzertutik hona jauzi handia eman dutela uste du Ibarrondok. "Gogor egiten ari gara lan, entsegu ordu asko ari gara sartzen, eta horren emaitza ikusi egiten da gero. Beti dago zer hobetu, baina, oro har, maila ona ematen ari gara, eta jendeak ere halaxe adierazi izan digu".

Argazkizaleentzako deialdia

Ilunpetan taldeak antolatzen duen ARG! festibalaren baitan argazki erakusketa egingo da Arantzazuko Gandiaga topagunean, apirilaren 28tik maiatzaren 28ra. Eta, hain zuzen, erakusketa horretarako lan bat aukeratzea da deialdi honen helburua. Interesatuak martxoaren 21a baino lehen aurkeztu behar dituzte proiektuak (<https://argifestibala.eus>).

IPUIN IBILTARIAREN

aurkezpena / Martxoak 22



Haur liburutegiko hainbat umeren artean (bakoitzak

orrialde bat idatzi du) osatu duten ipuinaren kontaketa Lur Kortaren eskutik. Martxoaren 22an (18:00) Haur liburutegian.

Beldurrentzako ipuinak

Ostegun Kontalariak ekimenaren barruan, 6-9 urteko gazte txoentzako ipuin kontaketa saioa egongo da udal liburutegian, martxoaren 30ean (18:30). Maite Galarzak 'Beldurrentzako ipuinak' saioa eskainiko du. Martxoaren 20tik aurrera banatuko dira gonbidapenak Haur liburutegian.



OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com



ARGITAGARBI

Almaraz

Immobilari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

AGENDA

03
MARTXOA



HITZALDIAK

> MARTXOAK 16 / 19:00

JUANMA QUELLEREN ETA PEDRO CAMPOS

#Territoriofelicidad liburuaren inguruko hitzaldia, esperientzia handiko bi coach-en eskutik. Sarrera doan Santa Ana aretoan.



> MARTXOAK 22 / 18:15

HAURREN EMOZIOAK ETA MUGAK

Txantxiki Famili Elkartek antolatuta, haurren osasun emozionalak duen garrantzia aztertuko da. Zein da gurasoen jarrera emozioen aurrean?. Ze zentzu dute mugek? Hizlaria: Nerea Mendizabal, psikopedagogo. Euskaraz. Plaza mugatuak. Aurrez izena ematea komeni da: txantxiki@gmail.com edo sarriaran@egibide.org Euskaldun Berria aretoan (Bidebarrieta, 18)

KONTZERTUA

'Amorante'

> MARTXOAK 5

Udaletxeko udalbatzar aretoan, 19:00

Udaleko Kultura sailak antolatuta, Amoranteren kontzertua entzuteko aukera izango dugu ezohiko eskenatoki batean, udaletxeko areto nagusian. Iban Urizar Elgoibarko musikaria da 'Amorante'. Musikologoa da Urizar, kultura ezberdinetako herri musikatik edaten duena, eta, hain zuzen, munduko herrialde ezberdinetara eramango gaitu bere abestien bidez.

> MARTXOAK 22 / 17:30

EROSKETA ARDURATSUA

(Compra responsable)

Pake Lekuk antolatuta. Hizlaria: Kontsumobide Pake Lekun.

> MARTXOAK 28 / 17:30

PUBLIZITATEAREN

TRIKIMAILUAK

'Los trucos de la publicidad'.

Pake Lekuk antolatuta. Hizlaria: Kontsumobide Pake Lekun.

MUSIKA

> MARTXOAK 4 / 22:00

TRIKITIXA EGUNA

Oñatiko eta inguruko hainbat trikitilarik jarriko dute dantzarako eta parrandarako giroa. Antixena gaztetxean.

> MARTXOAK 9 / 22:30

GBH + The Friday's Crew



Birmingham-eko punk talde legendarioa zuzenean entzuteko aukera. Sarrera: 10€. Aurrez, Boga Xagu eta Arranon salgai Gaztelekuan.

> MARTXOAK 10 / 22:00

Niña Coyote eta Chico Tornado + Revolta Permanent



Azken urteetan Euskal Herriko musikagintzan proposamen berriak plazaratu dituzten bi talde. Antixena Gaztetxean.

> MARTXOAK 17 / 22:30

LÁGRIMAS DE SANGRE + SANGRE DE MONO

Rap doinuak nagusituko dira Lágrimas talde kataluniarra eta Irungo Sangre de Mono taldeen eskutik. Sarrera: 10€ (aurrez 8€, Ona eta Arrano tabernetan). Gaztelekuan.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



MUSIKA

MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN UDABERRIKO KONTZERTUAK Martxoaren 25, 27, 28 eta 29an udaberriko entzunaldiak eskainiko dituzte José de Azpiazu musika eskolako ikasleek, Santa Anan, 18:30.

GASTRONOMIA

> **MARTXOAK 16 /**
AFARI PAKISTANDARRA Herriko komunitate pakistandarrak beraiei herriko janari tipikoak eskainiko ditu. Pakistango kultura, historia eta bizitzaz hitz egiteko aukera ere egongo da. Irekia da herritar guztientzat. *Gaztetxean.*

HERRI IBILALDIA

> **MARTXOAK 20 / 10:30**
HERRIAN ZEHAZ IBILALDIA JERARDO ELORTZAK GIDATUTA Pake Lekuk antolatutako Ongi Etorria Udaberriari programaren barruan, ibilaldi kulturala herriko kaleetan zehar, Jerardo Elortza historialariaren azalpenak entzunez.

ANTZERKIA 'Koadernoazuri'


> **MARTXOAK 12**
SANTA ANA, 19:30

Udaleko kultura sailak antolatuta, Korrika kulturalaren barruan, Hika Teatro taldearen lan berria ikusi ahal izango dugu. Arantza Iturbe eta Agurtzane Intxaurragak idatzitako lan honetan, bi ahizpen arteko harremana kontatzen da. Hogei urtetan elkarren berri izan gabe, jaioetxean egingo dute topo, ama hil berritan. Elkarri kontuak eskatzeko balioko die, eta amak biengan utzitako arrastoari aurre egin beharko diote. Sarrera: 10€ (<http://bibe-me>)

ANTZERKIA

> **MARTXOAK 22 / 17:00**
GERNIKAKO JUBILATUEN ANTZERKI TALDEA 'Gure Arbola Zaharra' taldearen saioa. Santa Ana aretoan.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Haur liburua

"¡Se busca! Lili la liebre."



Haur liburua

"Hankaz gora du amak mundua" (Euskal) literaturaren alde...



Liburua



Liburua

"El dilema del omnívoro"



Liburua

"Emakumeak, arraza eta klasea"



Liburua

"SPQR"

MERKATU TXIKIA

- > **DJ ekipoa** salgai. Pantaila akustikoak, nahaste mahaia, mikroak, argiak.... Oso gutxi erabilia eta egoera onean. Interesatuak detitu: 620 489 618
- > **Garaje** plaza bat salgai edo errentan Lizaur kalean. Interesatuak deitu: 607 853 582.
- > **Etxea** alokatzen da San Lorentzo auzoan. Telefonoa: 635 710 616

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Martxoak 6, 7, 15, 16, 24, 25 eta 26, eta apirilak 3 eta 4.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Martxoak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28, eta apirilak 5 eta 6.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58
Martxoak 2, 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28
Martxoak 3, 4, 5, 13, 14, 22, 23 eta 31, eta apirilak 1 eta 2.

joste tailerra

Jostun Chic

Coluri Etxebarria Arzuaga

- Arropen konponketak
- Erreformak
- Jantzigintza berria

Motxon kalea, 3
T. 635 749 477

Adin guztietarako klaseak

Lur Gorri

lurgorridenda@gmail.com

- Pentsuak
- Lan tresnak
- Haziak
- Landareak
- Lan erropak

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
eta beste hainbat gauza...

943 905 740 - 663 384 052

Kale Zaharra (I)

> Jerardo Elortza eta
Xabier Zelaia



Kale Zaharreko beheko aldea duela ehun bat urte.

Gure herriguneko kale-en nondik norakoak eta noiztik norainokoak kontatzeari hasiera emateko, egokiena **Kale Zaharra** lehen-dabizi aukeratzea dela iruditzen zaigu. Orain hurrengo atalean aurreratzen genuen **gebarata-rren Zumeltzegi dorrearen azpi-inguruetan** itxuratzen hasiko zirela, seguru asko, lehenengo kale oñatiarrak. Laster ikusiko dugu euren bilakaera historikoa.

San Migel parrokia, herriko historia erlijioso eta ekonomi-koan ez ezik, **Oñatiko hirigin-tzan** ere ardatz eta erdigune oso **garrantzitsua** izan da antzina antzinatik. Eliza nagusi horren inguruan, batez ere, gauzatuko ziren **Erdi Aroan** lehenengo etxe-ilarak eta kale-auzoak: hau da, gaur egungo **Kale Zaharra**, **San Anton** eta **Aita Madina** kaleak. Dena den, hileroko lan-txo hauetan behin eta berriro agertuko zaigunez, kale-izenak oso aldakorak izan dira histor-ian zehar.

Kale Zaharraren urratsak Aurretik ere zerbaitzuk izango ziren, jakina, baina Oñatiko hiri-egiturari buruz ezagutzen ditugun albisterik zaharrenak XV. mendeko bigarren erdikoak dira. Ordurako **hiru auzo nagusi** mol-datuta omen zeuden hemen: **Kale Zaharra** (*Rua Vieja*), **Kale Barria** (*Rua Nueva* [sic]) eta **Santa Marina**. Kale Zaharra, izenak berak adierazten digun bezala, antzinakoena zelako-edo,

jendetsuena ere bazen 1489an, 230 familia ingururekin; Kale Barriak 160 bat zituen; eta Santa Marinak 100 eskas.

XV. gizaldiaren bukaeran **Kale Zaharra Oraiturriraino** (oraingo Olaiturri) iristen baldin bazen, **hurrengo mendeetan beherantz luzatuz joan zitzaigun**: lehenik egungo Lizaar arkitektoaren kaleko bidegurutzearaino heltzea lortuko zuen, pitinka-pitinka Kurtzekoraino ailegatu arte; hori bai, zenbat eta beherago orduan eta zabaltxoago. Beheko parte horretan, Kanpantxo ere tartean dela, kale-baserri ugari egon ziren 1960ko hamarkadara arte.

Edonola ere, zenbait gauza garbi utzi beharra dago hastapenetik: gure oroitzapenen munduan geratu zaiz-kigun ideia batzuk berrikusi behar-rean gaudela, alegia. Esate batera-ko, Xabier eta biok Alzaa kalean jaio eta bizi izan ginen urte askoan, nahiz eta gu Kale Zaharrekoak ginela esaten genuen beti. Arrazoia sinplea eta nahasia da aldi berean: **izen ofi-ziala bat izan daiteke eta herrita-rrek darabiltena beste bat**; hainbat izendapenek luzaroan iraun arren, beste batzuek bizitza oso laburra daukate; gainera, erdi galduta eta ahaztuta zeuden izen batzuk berres-kuratu egin dira azkenaldian.

Kalearen izenak

Kale Zaharrari dagokionez ere, izen-kontu honek historia luze eta bihu-

rri samarra islatzen digu. Egia da XV.ean *Rua Vieja* moduan agiri dela paper zaharretan, baina hurrengo gizaldian **auzo-multzo bereziak azaltzen zaizkigu**, oraingo izendapene-kin kontraesan antzekoak dauzkate-nak: parrokiatik beherako lehenengo kaleek **San Migel auzoa** osatzen zuten, hots, Kale Zaharraren lehen zatirekin batera, honen ezker-eskumetan dau-den egungo San Anton kaleak eta Aita Madinaren lehen parteak. Beraz, uler gaitezen, **Txaketuena-Akerretik Onarainako hiru kale paraleloak**. Gazteek, batez ere, ondo ezagutzen duten eremua.

Gezurra dirudi, baina hortik behe-rako bi etxe-multzok **San Anton auzoa** moldatzen zuten, **Illarramen-di-Ona kantoitik Lizaar-Arrazola kantoirainoko tartean**. Kasu honetan egungo Kale Zaharra eta Madina kale-en bigarren zati paraleloan. Zera argi-tu behar da: San Anton ermita ingu-ru horretan kokatu zela ehunka urte-etan, haitzaren gainean, 1862an eraitsi zuten arte. Hor daude oraindik iturri ederra duen izen bereko plazatxotik ermitara igotzeko landu ziren harriz-ko eskailera bikainak. Are bitxiagoa: geroztik modutu zen hortik Kurtze-korainoko luzapen berriagoak **Kale-zarra** (*Callezarra*) izena bereganatu zuen orduko agirietan.

Honenbestez, pentsa dezakegu, ikuspegi historikotik begiratuta, Kale Zaharrak hiru auzo moduko izan zituela XIX. gizaldira arte: San Migel, San Anton eta Kalezarra, hurrenez

Kale Zaharrak mende askotako garapena eta bilakaera izan du

Kale Zaharrean hiru auzo zeuden: San Migel, San Anton eta Kalezarra



Kale Zaharraren antzinako auzo-banaketa.

hurren; hori bai, batzuk beste batzuk baino zaharragoak, etxe-
ilaren eraikuntza-dataren arabera. Egoera hau, ordea, zeharo
aldatu zen 1905ean, Zazpibideta/Sietevientosetik Kurtzetxo-
rainoko erdiko kale luze osoari ofizialki Juan Carlos Alzaa ize-
na ezarri zitzaionean, Santos Etxeberria alkatearen garaian. Eta
horrela jarraitu zuen, duela berrogei bat urte, Kale Zaharra
herri-izen klasiko berreskuratu zuen arte.

San Anton ermita

Goraxeago aipatu dugun ermita hau herrigune barruan zego-
en garrantzitsuena zen, Santa Marinakoarekin batera. Arrazoi
desberdinengatik, biak urte gutxiren aldearekin bota zituzten
1860ko hamarraldian. Oñatiko kale aldean aurkitzen den kare-
haitz trosko handi bakarraren gainean jasotako San Anton
ermitak lotura inportantea eduki zuen herriaren historiare-
kin, eta zer esanik ez Kale Zahar alde honekin.

San Anton ez zen ermita arrunta; zin-ermita ere baguenen.
Zin edo juramentu bereziak egiteko izendatzen ziren leku
horietako bat. Hilabete batzuetan Oñatiko parrokia ere izan zen,
San Migel eliza nagusiaren barruan pertsona bat hil zutelako.

Orduko eliza-legeek agintzen zuten, halakorik gertatzen zene-
an, tenplu hark urte betean itxita egon behar zuela. San Anto-
nek, hurren zegoen elizatzoxa izanik, parrokia-lanak bete zituen
epe horretan.

Erdi Aroan eraikitako San Antonen ermita hau, gorabehera
askoren ondoren, XIX.ean desagertu zen, arestian adierazi
dugun legez. Arrazoia bitxi samarra da; bueno, gaur egun ere
pasatzen dira horrelakoak. Ba, begira, zergatiaren zuztarrak:
esan berri dugu ermita haitzaren gainean eraikita zegoela; kare-
haitza izanik, material estimatua zen herriko hainbat obrata-
rako; besteak beste, 1859-1860an plaza berriko pelotalekua
egiteko, gaur egun ere hortxe dirauena.

Pelotalekurako eta beste toki batzuetarako materialen ustia-
ketak arrisku larrian jarri zuten ermitaren egitura bera. Harro-
bi-lanek eragindako brintzadak, arrakalak, pitzadurak agertu ziren
hormetan. Auzotarrek kontra egon arren, azkenean eraitsi egin
zen herri barruko ermitarik klasikoena. Santuaren irudia San
Miguel parrokiara eraman zen. San Anton izena, nolabait eta toki-
aldaketa batzuekin, geratu zaigu lekuko gisa.





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Txiste kontari

Egun batian alkatu zittuan Oñatin Arantzazuko fraidetan ibillitako herri desbardiñetako ikasle batzuk, bazkari baten lagun zaharrak ikusi, eta lehenagoko kontuak barritzaitteko asmuagaz. Bazkaittera fan aurretik txikito batzuk hartzera fan zittuan usadixuari jarraituaz, eta txikiteuan ebiltzela oñatiar batek haxe bota xuan kuadrillako baten gaiñian:



- Honek eraten xok ardauxa ura legetxe!
- Beste danak jo eta ma geratu zittuan alkarrerri begira:
- Zer edaten ote dik honek: ardoa, ura ala esnea?

Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|------------------------------|---------------------------------------|
| 1. Erromako zubixa, ostarkua | A. Txingor xehea |
| 2. Edur matazaak | B. Eulandarra |
| 3. Erlaiñua | C. Ostadarra |
| 4. Antzigarra | D. Elur-jausia |
| 5. (Izotz)-garrangaak | E. Elur malutak |
| 6. Lanbrua | F. Zurda, izotz beltza |
| 7. Litza | G. (Izotz)-burruntziak, karronkadelak |
| 8. Kixkoria | H. Behe-lainoa, erreka-lainoa |
| 9. Edurramila | I. Langarra, zirimiria |
| 10. Eulantza | J. Gandua, lausoa |

Erantzunak: 1c, 2e, 3h, 4f, 5g, 6f, 7j, 8a, 9d, 10b

EZ KIKILDDU,
EZ LOTSATU

Atxillo!

Araozgo umiak **atxilloka** jolasten euen gerra ostera arte hango elizpeian, eta jolas horretan ume bat harrapoten euenian **atxillo!** esaten euen. Hortik datoz **atxilo hartu** eta **atxilotu** berbak euskera batuak geruago maillegu hartu dittenak. Gaur egunian, oso zabalduta dagoz eta komunikabidietan eta abarretan txitean-pitean entzuten dogu: *ulixa atxilotu daueilla, sandixa atxilo hartu eueilla edota bendixa atxilo eruango daueilla.*

Hori ei da geure euskera moldiak euskera batuari emundako lehenengo berbia.

Hortaz, berba hori ebalteruzkuan jakin egizu bertakua dala, eta zeure etxeko berbetia ebalten dozunian ez kikilddu eta ez lotsatu.

Euskeraz egogi

GURA IZAN

Aditz hau *'nahi izan'* zentzuaz gain, *'maite izan'* zentzuan be ebalten dogu eta horixe ekarri gura dogu orainguan ale honetara. Hona hemen aditz tablia hirugarren pertsonari begira:

GURA IZAN aditza (Indikatibua ZER-ZEĨNERI-ZEĨNEK)

ORAIÑALDIXA

		Neutra	Alokutibuak (hitanua)	
Nik	amari asko	gura XAT	<i>gura TXAT</i>	<i>gura TXANAT</i>
Hik	amari asko	gura XAK / XAN	_____	_____
Harek	amari asko	gura XAU	<i>gura TXAK</i>	<i>gura TXAN</i>
Guk	amari asko	gura XAUGU	<i>gura TXAU (gu)</i>	<i>gura TXANA(g)U</i>
Zuk	amari asko	gura XATZU	_____	_____
Zuek	amari asko	gura XATZUE	_____	_____
Hareik	amari asko	gura XAUE	<i>gura TXAI</i>	<i>gura TXANAI</i>

Ikusi nagusi eta ume baten arteko alkarrizketa hau:

- Zenbat gura xatzu, ba, zure arreba txikiñari?
- Asko!
- Eta aittatxori eta amatxori be asko gura dostezu?
- Bai, hareiri be asko gura dostet
- Eta aittajauna-amandriai be asko gurako dostezu, ezta?
- Ba, bai, zulakuairi baiño gehixago!



Mozorrotutako ikasliak

Eztakigu ziur noizkua dan argazki hau, baiña 1930-1931 ingurukua izan leikiela pentsaitten dogu. Eskola-umiak agerketan xaku; neskatiak gehixenak, baiña dozenerdi mutiko be hor dagoz, eskuetan txapa txikitxuak dakoilla. Komedixak egittekot jantzixekin ala karnabaletarako mozorrotuta? Erropak eskolakuak zirala emuten dau, garai haretako beste fotografia batian eta beste ume batzuekin be agerketan dira-eta. Hau ospital zaharreko patixuan atarata daguela dirudi. Atzeko bi gizonak ezezagunak dira guretzat eta ikasliak, dudaren bat edo besterekin, ondorengiak dittuzue:

Goiko illaran: Arantxa Uribarrena; Juanito Lizaur (?); Joxe Migel Urtaza, *Kirriñenekua*; Roberto Zulueta, *Uriartenekua*; Enrike Arana, *Porru*; Eduardo Azpiazu, *Guria* tabernia euki ebena; Juan Mari Lizaur, Damian arkitektuaren semia; eta Itziar Arrazola, Goribar auzoko kurtiderixakua.

Erdiko illaran: Belen Zufiria, Tetuan kalekua (gaur egungo Zubibarri); Mari Elen Arregi, Kale Zaharreko *Arrillaganekua*; Blankita Egaña, *Callestarra*; Lorenza Intza (maistria ?); Kontxa Baltzategi, Patrua kaleko *Zirrinkaiñena*; Maria Angeles Ibarrondo, Kale Barriko *Ibarrondonekua*; Maria Luisa Egaña, Santa Marina onduan zan *Egañaneko* dendakua; eta Nati Beitia, Kale Zaharreko *Kastillona*.

Behoko illaran: Jesusa Letamendi; Rosarito Letamendi, aurrekuaren ahizpia eta bixak plazako erropa-dendakua; Pilar Bikuña, San Antue kalekua; Sorkunde Arrazola, Goribar auzoko kurtiderixakua; Nati Ibarrondo, plazako zapaterixakua; Karmen Peña, kontzejuko sekretarixuaren alabia; Karmen Iñarra, Santa Anakua; Maria Dolores Aranburu; Eujeni Erostarbe, Kale Zaharreko Faustino ojalateruaren alabia; eta Maria Luisa Aiastui, *Kuba* tabernakua.

J. E.

Fotografia Arantxa (Zazu) Ugalde Egañak eskuratu dosku.
Argibidiak, berriz, Maria Pilar Egaña Muruarenak dira. Milla esker!



Zer eskaintzen dugu?

MOTA GUZTIETAKO ASEGURUAK

> Bizitza, heriotza, osasuna, automobilak, etxebizitzak, komertzioak, komunitateak, bidaia aseguruak... eta **baiza enpresak ere.**

DKV
SALUD Y SEGUROS MÉDICOS



DKV Seguros

Hemen da DKV Integral aseguruaren **deskontu kanpaina** berria honako zerbitzuekin:

- > Oñatiko profesionalak (dentista, fisiologoa, errehabilitazioa...)
- > Udalaiz Osasun Zentroa
- > Ospitaleak:
 - Clínica Universidad de Navarra (mugarik gabe)
 - Policlínica Gipuzkoa
 - Quirón
 - San Jose

etab.

Kanpaina hau ballagarria da martxoaren 1etik apirilaren 30era (biak barne) kontratatutako aseguru berrientzako.

Cuídete mucho

Una compañía
del Grupo Asegurador ERGO